



1908ko Euskal
Lore Jokoak
Eibarren



Antxon Narbaiza Azkue



EGO IBARRA

EIBARKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE EIBAR
EGO IBARRA BATZORDEA - COMISIÓN EGO IBARRA, 35
EIBAR, 2008

1908KO EUSKAL LORE JOKOAK EIBARREN

© Edizio honena, Eibarko udala
© Testuena, Antxon Narbaiza Azkue

Egilea:
Antxon Narbaiza Azkue

Edizio paratzailea:
Ego Ibarra batzordearen idazkaria

Argazkiak eta eskerrak:
Eibarko Udal Artxiboa - Archivo Municipal de Eibar
José Ignacio Olave
Museo Zuloaga Museoa, Zumaia
Museo del Palacio Real, Madrid
Fürstlich Hohenzollernsche Hofkammer, Sigmaringen
Jose Kareaga

Diseinua eta Maketazioa:
www.soniauribe.com

Eskubide guztiak gordeta. Liburu hau, doan, norbere ordenagailura deskargatu daiteke, baina liburu honen testuak eta bertako argazki bat bera ere ezin da beste inon berragertu, ez zatika, ez osorik. Hori egin nahi duenak, derrigorrezkoa du Eibarko udalaren baimena, egilearena, argazkilariena edo argazki-jabeena eskuetan izatea eta iturria aipatzea.



Kolore hau

duten hitzak sakatuta, liburu barruko estekak

(oinak, dokumentuak...)

Kolore hau

duten hitzak sakatuta, interneteko estekak.



1908ko Euskal
Lore Jokoak
Eibarren

Antxon Narbaiza Azkue

1.	Ehunurteurrenaren haritik	6
1.1.	Aurrekariak: Iparraldetik Abbadia	8
1.2.	Donostia: Euskaltzale-gunea	9
1.2.1.	Consistorio edo Batzarrearen sorrera	9
1.2.2.	Hiriburutik Probintziara	11
1.2.3.	Lore Jokoak: Araudi berria	11
1.2.4.	Gipuzkoa mailako eraketa	13
1.3.	Eibarko Lore Jokoak	15
1.3.1.	Lore Jokoetako programa:Lehiaketa baten gorabeherak	20
1.3.2.	Herriko Arte eta Industria Erakusketa	24
1.3.3.	Nekazaritza eta Abeltzaintza Erakusketa	30
1.3.4.	Idatz sariketen izaeraz	33
1.3.4.1.	Monografia eta gainerako Sariketak	33
1.3.5.	Eliz ospakizunak	36
1.4.	Belaunaldi zaharren euskalgintza testimoniala	42
1.4.1.	Ideologia	48
2.	Eranskinak	51
2.1.	Jaien antolakuntza	52
2.1.1.	Kronologia labur bat	56
2.2.	Egunkarietako artikulak	60
2.2.1.	“Desde Eibar”	60
2.2.2.	“Eibar”	62
2.2.3.	Borboiak Eibarren. “Los reyes en Eibar”	69
2.2.4.	Eibartarren ekarpena Arte eta Industria erakusketan	77
2.2.5.	“Desde Eibar. Mirando adelante”	79
2.2.6.	“Euskal-itz-jostaldien Batzarrea”	81
2.3.	Hiztegi laburra	86
3.	Notak	88
4.	Eibarko Lore Jokoak udal dokumentuetan	96

1

Ehunurteurrenaren
haritik





Aurtengo 2008ko abuztuaren 20an beteko dira ehun urte Lore Jokoak ospatzen hasi zirela Eibarren. Urteurren hau eibartar hiritarrari gogorarazteko otu zitzaion Eibarko udalari garai hura berbizituko zuen lan bat argitara ematea.

Ondoko lerroetan barrena eta gure eginkizunari nolabaiteko norabidea ematearren, hasteko, Lore Jokoak zer izan ziren gure historia hurbilean azalduko dugu, XIX. mendean zehar Europako Hegoaldean erruz zabaltzen hasi zirenetik.

Abbadiaren ekarpena Euskal Herrira aurrenik eta, gero, Donostiako Batzarreak eman nahi izan zion kultur ukitu sakonagoa aipatuko dugu.

Eibarko ospakizunetan kokatuz, horrelako jai batzuen festa-esparruak nola antolatu ziren agertzen dugu. Bi ardatz nagusi izango zituen Eibarko Festen antolamenduak: lehenengo eta behin, Herriko Arte eta Industria erakusketa, arrakasta bete izan zuelarik –milaka eta milaka hurbileko zein urrutiagoko bisitari izan baitzituen-. **Alfredo Laffittek Batzarreko**¹ buruak sei milatik gora zenbatzen zituen.

Bigarrenik, kultur alderdiak izan zuen protagonismoa azpimarratuko genuke. Zehatz esateko, haren atal bat baino ez zen izan idatz sariketa. Eibarko historiari buruzko *Monografia* sariketaz ari gara. Iragana zintzoki jasoko zuen Eibarren historia handia nahi **zen**². Premonizio lana, zinez, kontuan izaten badugu, ondorengo



Eibarko kaleak 1908an. *Argazkia: Indalecio Ojanguren. Eibarko Udal Artxiboa.*



urte gatazkatsuek ezinezkoa bihurtuko zutela hainbat datu biltzea. Hain zuzen, Espainiako Gerra Zibilak udalerriko dokumentu askoren erreketeta, leku aldatze eta desagerketa ekarri baitzuen. Horra Jaien ardatza; gainerakoa, larrumintza zen, ondoko lerroetan adierazten den bezala.

Bestalde, Eibar eta eibartarrez dihardugularik, ezin falta XX. mendearen 1. herenean jaso ohi dugun lekukotasuna: erlijioaren eta haren erabilerak ekarri ohi zuten herritarren arteko liskar ukitua.

Eranskinean, berriz, herritarren ahaleginak aipatzen dira Eibarren irudia ongi gera dadin bisitari guztien aurrean; horretarako beraietako askok eta askok Jaien antolakuntzan esku hartuko dute. Hain zuzen, arestian aipatu dugun Erakusketaz xehetasun gehiago ematen dira, beraien artean eibartar ekintzaileen izenak.

Ezin falta azkenik, orduko prentsaren lekukotasuna. Eibartarrei zuzenki inporta zitzaaien industriaren egoera eta bestelako aipamenak ematen dira bertan.

Hitz bi amaitzeko teoriarik euskararen gorazarre izan behar zuten ospakizun haien gainean. Euskarak protagonismoa behar zuen kultur hizkuntzaren izatea, estatusa, erdiesteko. Bidaldi luzean helburu haren aldeko harri koxkorrik txikiena jartzea bazen ere. Bazuen egia esatera gure hizkuntzak orduan oraindik edozein mintzaira gogobete zezakeen lehen eta ezinbesteko baldintza: hiztunak.

Baina euskarari, eremu urriko edozein hizkuntzari legez, beste eragile batzuek egiten zioten huts, besteak beste: gizartea, politika eta ekonomiari zerizkienak.

1.1. Aurrekariak

Tradizioaren inguruan

Lore Jokoek tradizioz gizakiaren adierazpide den hizkuntzaren alderik ederrena erakutsi nahi izaten zuten: poesia. Eta haren edertasunak, itxuraz inoiz agortzen ez zen garaian garaiko aginteak ezarritako erromantizismo egokitu batek gauzatua, zenbait ezaugarri agertu ohi zituen. Emakumea ageri zen, neska gaztea gehienetan, tradizioko ninfa bailitzan, olerkiaren emankortasun eta ugalkortasunaren erakusle. Ospakizun haiek azalerazten zuten koloreen sinfonia, lore festen bidez gauzatua, Jailetako erreginaren aukeratzea, txukun-txukun apainduriko kaleak, kabalgatak, gaueroko argi eta su festa, guztiek laguntzen zuten aipaturiko edertasuna gozesten. Baina bazen besterik.

Ipparraldetik Abbadia

Euskalerriko Hegoaldean eragina izan zuten euskararen aldeko mugimenduen aitzindari ditugu **Anton Abbadia** zuberotarraren Lore Jokoak. Hain zuzen, XIX.



mendearen bigarren aldia (1851-1897) ia erabat bete zuten ospakizun haiek. Garbi zegoen Iparraldeko egoera politiko hobeak ere, karlistaldirik gabe, ospakizun haien plazaratzea erraztu egingo zuela. Gauza da, plaza irekian eginiko ospakizuna lehenetsiz, Lore Jokoak euskal nortasunaren pizkunde izan zitezten nahi zutela seguruenik antolatzaileek. Agertokiak horrelakoa zirudien: Ipar eta Hego aldeko idazle askok hartzen zuten beraietan esku, halako muga apurtze sinboliko baina interesgarria gertatzen zelarik. Bidasoaren bi aldeetako bizilagunen batasun-grinak bultzada polita izan zuen. Urruñan eta Saran hainbat urtez ospatu ondoren, 1879an Elizondon ospatuko dira lehengo aldiz. Gipuzkoara, berriz, Abbadiaren formatuan, hiru bider baino ez ziren hurbildu: 1881ean Irunera, 1886an Urrietara eta, azkenik, 1893an Azpeitiara.

1.2. Donostia. Euskaltzale-gunea

Esan beharra dago, donostiar korronte erromantikoa deitu izan denaren haritik, 1879tik XX. mendearen hasierarantz zabaltzen den aldian, euskararen aldeko jendetalde langile eta neurri handi batean eragilea bilduko zela hiriburuan. Eta, adierazi berri dugun bezala, Abbadiaren oldarra Iparraldetik Hego Aldera etortzearekin bat dator denboran.

Zenbaitentzat **Euskal Pizkundera**ren sorreratzat jo izan den garai hura ezin erakargarriago bilakatu zen; ordukoak dira hainbat ekimen interesgarri: Manterolaren *Euskal-Erria* aldizkariaren hastapena, Nafarroako “Asociación Euskara” eta, azkenik, Abbadiaren Lore Jokoen hegoalderatzeaz batera, Donostian apalkiro hasiko diren euskarazko literatur lehiaketak. Azken hauen antolatzaileek laster Diputazioaren eta bertako udalaren sostengua lortuko dute. Hiriburuan estrainatuko diren Jaiak, bada, nahiz besteen antolaketarik ez izan, kulturalki eraginkorrak izango ziren: hasteko, literatur alor gehienak landuko ziren, bigarrenik, Donostian ospatzen ziren bitartean, euren zedarria, esparrua, egokiago gauzatzen baitzuten.

1.2.1. 1882: *Consistorio* edo Batzarrearen sorrera

Horrela bada, *Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea* izenaz ospatzen hasiko ziren Donostiako Euskal Festak 1879an. Mugimendu hartan nabarmentzen zen arestian aipatu dugun **Jose Manterola**ren figura, bere *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan sortuko baitzen hiru urte gero 1882an Donostiako Udalak eta Diputazioak abiarazi zuten *Euskarazko itz jostaldien batzarrea* edo erdaraz *Consistorio de Juegos Florales euskaros* antolakuntza. Literatur sariketa haiei nolabaiteko sendotasuna eta, batez ere, iraunkortasuna emango zion diru-laguntza bideratu ahal izateko, hain zuzen. Bultzatzaileek aitortzen zuten, Katalunian eta Valentzian egiten ziren ospakizunak



aintzakotzat hartzen zituzten. Guztia, beste mugimendu handiago baten barruan kokatzen zuten, zeinen jatorririk hurbilena **Okzitaniako felibreak** zirela aitortzen zuten. Poesiaren paradisia, alegia, bere gailurra Europaren mendebaldeko Lore Jokoetan izango zuena. Gurean, gainera, erromantizismoak zekarren hizkerari etxeko berezitasun sozio-politiko gehitu behar zitzaion.

Gauzak horrela, batzorde eratzailleak garbi zituen helburuak:

La Comisión que suscribe, en vista del favorable resultado que vienen ofreciendo estos honrosos certámenes y la influencia que pueden ejercer en la conservación de nuestra prehistórica lengua y en el desarrollo de una literatura propia y especial, que eleve al vascuence de la categoría de una lengua vulgar, haciéndola remontarse á las esferas del arte y á la expresión de las manifestaciones todas del espíritu humano.

(Oroimengarria, 1882, 1. or.)³

Asmoen mailan geratuko ziren helburu arrandiotsuak, aise ohartuko garen legez. Baina Manterolaren eta bere lagunen ekimen hark zerbait gehiago izan nahi zuen. *Batzarre* berriak bere betekizunik apalena, behar bada, literatur sariketak prestatzea bazuen, itzal handikoenak, ostera, euskararen akademia sortzea amesten zuen. Aristides Artiñanok Durangoko Euskal Festetan bere ideia aurkeztu baino lau urte lehenago. Ondoko hitzek adierazten duten legez:

(...) El Consistorio, cuya creación proponemos, preparará con estudio y meditación, y con la antelación necesaria, los certámenes anuales, constituyéndose á la vez en un centro científico, de carácter académico, que podría resolver con cierta autoridad las cuestiones lingüísticas y literarias que se sometieran á su examen.

(Ibid.: 2. or.)

Manterolaren belaunaldiak bi erakutsi garrantzitsu utzi zituen hurrengo belaunaldientzat. Bata, euskaltzaleen ekimenak erakundetzen saiatzearen garrantzia, arriskuak arrisku, behin betiko finkaturik gera zitezen, eta bigarrena, inportantea baita ere, euskaltzaleetasunaren zubi eta erreferentzia izatearena, gero etorriko ziren euskaltzaleentzat hutsunerik gabeko aldia bilakatu nahia, alegia.

Manterola 1884an gazterik ustekabez hiltzean Euskal Festek sustatzailerik bikainena galdu bazuten ere, haien ekarpen apal baina iraunkorrak jarraitu egingo du hogeigarren mendean ere. Nahiz eta Donostialdeko kultur ekimena izan, Probintziara azkar hedatu zen hura, jarraian zehazten dugun bezala.



Euskaltzaletasunak sortu zuen nomina ikustea baino ez dago, Festen antolaketan eta literatur sariketetan esku hartu zutenen zerrenda oso zabala baita. Euskalgintzan izen esanguratsuak izango diren asko daude bertan: Tx. Agirre, G. Arrue, Jose eta Ramon Artola, A. Arzak, Etxegarai anaiak, Lopez Alen, M. Soroa, B. Iraola, T. Alzaga, Campion bera, etc. Haietariko batzuk arestian aipatu dugun XX. mendeko euskaltzaletasunaren zubi izango ziren⁴.

Donostian ospatu ziren bitartean jaien euskararen aldeko helburua nagusi eta gailen geratu zen. Hots, beren funtzio behinekora zerbait hurbiltzen zirela pentsa daiteke, urterik urte agertzen ziren idazle berriak lekuko. Baina eginkizun hura garrantzitsua izanik ere, bazen lehiaketa soilaz kanpo besterik, hau da, euskaltzale haien bestelako lana, hots, euskararen aldeko giroa sortzea gizarte-mailan. Euskara plazaratu egin behar zen, auzo euskaldunetatik hirigune elebidunera hurbildu. Hau da baserri eta arrantzale mundutik euskara kultur hizkuntza inondik ere ezin zitekeela pentsatzen zutenengana⁵. Horretarako antolatzaileek Donostiako Udala eta Diputazioa beren asmoetara bideratzen jardun zuten.

1.2.2. Hiriburutik Probintziara

Festok Donostian hainbat urtez ospatu ondoren, 1896an Probintziara⁶, Arrasatera, hain zuzen, irtengo dira, eta hurrengo urtean Oiartzunera. Horrela, 1925ean amaituko diren bitartean Gipuzkoako hainbat herri zeharkatuko dute. Ohartuko garenez, Gipuzkoako diputazioaren sostengua eta antolakuntza dute.

Hona, hurrenez hurren, Eibarkoaren aurretik hautatutako herriak, zaharrenetik hasita: Arrasate, Oiartzun, Zestoa, Zumarraga, Zumaia, Azpeitia, Oñati, Irun, Villafranca, Bergara, Donostia eta Elgoibar.

1.2.3. Lore Jokoak: araudi berria

1898an Donostian Joaquin Pavia diputatuak Zestoan ospatuko ziren Jaietarako araudi berri bat proposatu zuen bertan. Egitasmoa ugariagoa zen osagai berriak bereganatzen baitzituzten. Ez zen ezer berezirik aurreikusten baina harrezkeroko, oro har, ospakizunok sinbologia zabal batean sartu nahi izan zituzten: Euskal-Festa haietatik hasita tradizioaren, erlijioaren eta euskararen bat egitea pentsaeran ez ezik arauetan ere finkaturik geratuko zen. Eta guztiaren lotura, beti ere maila bat gorago garrantzia aldetik, Elizaren irakatsia zegoen. Geroago itzuliko gara autu honetara (Ikus 1.3.5. Eliz ospakizunak).

Horra osaturik Lore Jokoetako hirutasuna: euskara, kultur ospakizunetan agertu behar zena, baserria, euskal izakeraren sustraia, ohiko erakusketa, eta, herri kirol ugarien bidez, eta, azkenik, erlijioa, euskaldunaren barne ezaugarri behinena, elizkizun berezien bitartez.



1908

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXVII garren urtea)

POZA, ATOZKIT!.....

Pozaren billa nator,
eman albalite;
lurrean badala-ta
aitortu dirate.
Zati batekin, orra!
doatsu nitzake,
baiñan eztakit ziur
non jo ta zein ate.

Poza, non bizi zera?
¡A ondo baneki!
Zure ate-ondoan
negoke ni beti;
baiñan biyotz maitale
dagonak iraki
berriyak jakiteko...
¡ezercho eztaki!

Lanak eragiten dit
negar ta zotiña,
nabai-arazo ere;
¡Zer aldi samiña!

“Poza, atozkit” poema. Euskal-Erria aldizkaritik jaso. Egilea, euskaltzain izatera iritsiko zen Ramon Intzagarai donostiar idazlea izan zen. *Eibarko Udal Artxiboa*.



1.2.4. Gipuzkoa mailako eraketa

Hor ditugu bada, itsatsirik Lore Joko, nolabait betikoak, festa eta erakusketa alde batetik, eta osatuz zihozen idatz sariketak, bestetik, hots, delako Kontsistorio edo Batzarrearen ardura zen antolakuntza. Baina probintzia mailako ospakizunek hastapeneko ohiko esparru finkoa, nolabaiteko giro euskaltzalea desbideratu egingo dute. Izan ere ordutik aurreragoko jai haien koadroa erraz antzeman daiteke: kulturari eskaintzen zitzaion esparrua, hots, literatur eta musika sariketak, bertsolariak etc., sail haietaz kanpo, hasteko, baserri munduaren presentzia ahalguztiduna zegoen: nekazaritza eta abeltzaintzako produktuen erakusketa eta sariketa, eta beraiekin batera, euskal kirolak. Hots, labur esanda, Abbadiaren eskematik hurbilago ibiliko dira. Hori bai, beti ere tokian tokiko berezitasunak protagonismo handia hartzen zuen, Eibarren kasuan ikusiko dugun bezala.

Batasun deiak

Baina euskalgintzara itzuliz, esan behar Gipuzkoako XX. mende hasierako hark ez digula euskalgintzaren eraginkortasunaren aldetik, ez intentsitatez ez eta ere indarrez, aldaketa handirik ekarriko. Euskararen aldeko mezua kokatu behar zuten gizartean eta ez zen nonbait, erronka erraza; izan ere nola ohartaraz hiritar arrunta euskararen galeraz? Hain zuzen, bere bizitzaren ia %100 euskaraz aritzen zenari. Ba ziren, dena den, beste kitzikagarri [batzuk](#)⁷. Hasteko, mende berriak, gertakari objektibo soil horregatik itxuraz, adi egon beharra eskatzen zuen. Karmelo Etxegaraik 1905ean idazten zuen bezala, urte hartan Bergaran ospatu behar ziren jaien egitaraua eskaintzen zuenarekin batera:

(...) Se avecinan para el país vascongado momentos críticos y solemnes y ante su proximidad las voluntades tienden á agruparse y á unirse, olvidando rivalidades y rencores antiguos. Está en la atmósfera la reconciliación de los ánimos, la Concordia entre los hijos de Guipúzcoa, que no quieren renunciar á su cualidad de guipuzcoanos, y se sienten unidos entre sí por este lazo fortísimo, por más que otras diferencias establezcan sobre unas y otras separaciones más o menos hondas.

(“Bosquejo de programa para las fiestas euskaras de Vergara”, GAO, JD-ITF 1550)⁸



Ehunurteurrenaren haritik

BANDO.

D. Hilarión Suinaga, Primer Teniente Alcalde de esta villa de Eibar en funciones del propietario.

Hago saber: Que la Comisión organizadora de las Fiestas Euskaras, deseando dar toda clase de facilidades a los que con motivo de las fiestas nos honren con su visita, ha acordado abrir un registro de fondas, restaurants, tabernas, casas particulares etc. en el que todo vecino pueda inscribir aquello que en el sentido de manutención y alojamiento pueda ofrecer para los días 4, 5, 6 y 7 de Septiembre.

Este registro se pondrá á la disposición de los forasteros sin que esto implique ningún compromiso para la comisión ni para el inscripto, puesto que tendrá el caracter de meramente informativo.

Deseando la Comisión que este registro sea lo mas completo posible, tanto para que no queden intereses postergados por negligencia en las inscripciones, como para demostrar una vez mas la hospitalidad de este pueblo, al mismo tiempo que pueda tomar sus medidas caso de no creer suficientes los elementos disponibles para satisfacer las necesidades de los forasteros que se esperan:

Suplico á todos aquellos que puedan ofrecer camas, comidas ó ambas cosas, den nota lo mas detallada posible de lo que disponen para los días señalados.

Estas notas pueden entregarse, bien de palabra ó por escrito á los Señores siguientes:

D. Estanislao Artamendi (Barrencalle)
" Pablo Aranzabal (Maria Angela.
" Pedro Cruceta (Estación).

Hilarión Suinaga alkatearen bandoa herritarrei zuzendua. Erregistro bat osatu nahi da, jateko edo lotarako lekua eskain dezaketenekin. Abuztuaren 25ean egina, apur bat berandu, Jokoak hasi baino hamabost egun lehenago. *Eibarko Udal Artxiboa.*



Ospakizunok, hizkuntzaren aldeko izan nahi duten kultur adierazpenek, hain zuzen, XX. mendean ere, egoera bertsuetan dauden hainbat naziori gertatzen zaien bezala, aurreko mendetik datozen beste haien jitea izango dute nagusiki. Karlismaldien amaierarekin batera abiaraziak, Euskal Jai haiek dira gurean euskarari kultur arrastoa gizaratean, nola edo hala, segurtatzen diotenak. Probintzia herriz herri zeharkatzen zuten agerraldiak ziren, euskararen aldarrikapena beren helburuetako bat zutelarik. Honela zioten esaterako, beren hitzik larrietasun Zumarragako 1899ko Euskal Jaien antolatzaileek: “El Consistorio de Juegos Florales euskaros, **atento á su misión de velar por la conservación de la lengua vascongada y la propagación y el desarrollo de nuestra literatura y música peculiares** ha decidido celebrar”...(Ibid. Beltzak gureak dira).

Euskal Festek euskararen jendaurreko eta kaleko presentziaren lehenengo lekukoak izaten jarraitzen dute, hau da, euskal kolektibitateak hizkuntzaren alde era lausotu baina batuan egiten duenaren testigantza. Dena den, ez gaitezen engaina, ospakizun haien izen osoa honelakoa zen: **Nekazaritza eta Ganaduen billaldiya. Lore Jokoak**⁹.

1.3. Eibarko Lore Jokoak (1908)

Hastapenak

Irailaren 4, 5, 6 eta 7an geratzen ziren festa-egunak finkaturik, ordurako Arte eta Industria Erakusketa hasita bazen ere. Baina horren ospakizun garrantzizko batek bere *impronta*, bere marka, bere ukitua uztea eskatzen zuen. Herria prestatu egin behar zen. Azpiegituretatik hasita, kaleak txukundu egin behar ziren, ostalaritza prestatu -jan eta lotarako leku asko beharko zuten-, eta, batez ere, egitarau zabaleko alor guztiak lotu. Gero herriaren ezaugarriak, nortasuna eta historia, erakustea etorriko zen. Beste maila batean geratzen zen, arestian aurreratu dugun bezala, abuztuaren 20an abiarazia, hilabetez luzatuko baitzen, Arte eta Industria Erakusketa. Beraren helburua, Eibarrek ekoizten zituen produktuak bisitariari plazaratu. Eta, eginahalaren azken muturrean, zera zetorren, alegia, orduko ahaleginak etekinen bat eman behar zuela. Horretarako langintza hartan herritar asko beharko ziren. Eibarrek orduan zituen 9.000 biztanleetatik banaka batzuek baino gehiagok lan egin beharko zuten erruz eta gogoz.



Bonifacio Villabellak Eibarko Lore Jokoetako programa onenaren saria jaso zuen, baina Eibarko udalak bere jatorrizko lana aldarazi zuelako hari muzin egin eta bere kontura argitaratu zuen hemen ikusten dugun programa. *Eibarko Udal Artxiboa.*



Sasoi hartako bordadua. *Argazkia: Antonio Aguirresarobe.*

Herriko bandera

1908ko urte hasierarako, korporazioak lanean ari denaren zantzua erakusten digu. Otsailaren 5ean bildu den udal batzarrak bandera bat egin nahi du, herri-bandera bat, Lore Jokoak bertan baitira. Honela dio F. Salaverria zinegotziak:

(...) Es conveniente tener una bandera de esta villa, del que carecemos (sic) y entiende se tendrá que pensar algo sobre el particular toda vez que el presente año corresponden en esta villa las Fiestas Euskaras.



Eztabaidan beste zinegotzi batzuek ere hartzen dute parte. Eta ondokoa entzuten da: (...) “Existen en el Ayuntamiento diseños ó planos del escudo que ha de ostentar la bandera formados por D. Fausto Mendizabal”. Ondoren idazkariak honako hau jasotzen du: (...) “Se dispuso hacer un estudio en el presupuesto corriente para ver si se cuenta con recursos para la adquisición ó confección de dicha bandera”.

Hilabete beranduago, otsailaren 19an, aipaturiko Fausto Mendizabalek 50 pezetako faktura aurkezten du: (...) “Factura importe del dibujo ó proyecto de escudo para la bandera de este Ayuntamiento hecho por aquel *señor*”¹⁰.

Zorioneko bandera ez da berehalakoan amaitzekoa. Irailera arte ez da iritsiko. Hilaren biko udal korporazioak honela jasotzen du berria. Espainiako erregea heldu baino zerbait lehentxoago, alegia. J. A. Lesarri idazkariak dioenez herrikoa eta Espainiako iritsi berri dira Bartzelonatik. Eta gehitzen du: “Que son de sumo agrado de la Corporación” (Ibid. 193. orr.).

Hilaren 16an, dirutan orduko 1425 pezeta kostatu ziren banderen faktura (herrikoa eta Espainiako), helduko da. Bada, honelako xehetasunak zituen herrikoak: (...) “seda bordada en oro con todos sus aditamentos de asta, corbatas, portabanderas, estuches” etab. (Ibid. 198. or.)¹¹.

Aurrekontuak

Horrelako ospakizun handi batean diru kontuak ez dira azken unera arte ixten. Eibarko udalak ere bere zenbakiak burutuak zituen. 15.000 pezetako aurrekontua aurreikusten zuen hasiera batean. Hori adierazten zitzairen hain zuzen jai-egitarau egokienaren lehiaketara aurkezten ziren lanei. Alegia, euren balizko programak aipaturiko aurrekontua aintzat harturik egiteko. Baina horrelakoetan ohi denez, aurreikusitakoa aise gainditua izan zen. Izan ere, nahiz eta 6.000 pezeta diru-sarrerak izan, Erakusketa eta bestelako ikuskizunetakoak, halere, 2000 pezetako defizita izan zuten azkenik *Lore Jokoek*¹².

Herri-txukuntzea

Hasteko, Lore Jokoak antolatu behar zituen Udal Korporazioak alkate gabe jardun beharko du. Kontserbadoreak nagusi diren udalean, otsailaren 5ean Udalak berak baimena emango dio Orbea alkateari Buenos Aires aldera jo dezan bere negozioetan *jarduteko*¹³. Aldi luze batez Hilarion Suinaga alkateordeak hartuko du alkate betekizuna.

Baina arestian adierazi dugun legez, Ospakizunak herria dotore jartzea eskatzen zuen. Besteak beste, Espainiako errege-erreginen ia bisita segurua iragartzen



Estaziñoa. Argazkia: Castrillo-Ortuoste Fondoa. *Eibarko Udal Artxiboa*.

baitzuten. Apainduren artean, borboiak Donostiako Miramar jauregitik kotxez etorriko zirenez, -gainerako jarraigoa trenez zetorren, dena den-, egoki ikusten zen, bidean, Estaziño kalean, arku bat jartzea ohorezko agur bezala (“con mastelles (sic) y gallardetes”). Aurretik baina herriaren beste muturra, Untzaga kalea, gero **F. Calbeton** bihurtu zena, politikari ezagunaren ohorez, egokitu egin behar zen, bertatik ere pasatuko baitzen seguruenik erregea, Isasiko markesa anderearen etxerako bisitan. Beraz, bandera ez ezik bestelako eginkizunik ere bazuen herriak. Udarako denak prest behar zuen. Besteak beste, Hilarion Suinagak zuzentzen zuen korporazioak kale lanak amaitutzat nahi **zituena**¹⁴.



1.3.1. Lore Jokoetako programa: Lehiaketa baten gorabeherak

Hain oihartzun handia izan ohi eta behar zuten Lore Joko batzuk prestatzeak berekin zekarren herritarren parte hartze estua. Eta zer hobe ahal zenik eta hiritar gehienek iritzia ezagutu ahal izateko lehiaketa bat antolatzea, nork izan zitzakeen -epai-mahaiaren ikuspegitik, kasu honetan udal gizonak eurak-, ideiarik hoberenak jakiteko. Eranskinean ematen ditugu udal-agiri, data eta gainerako xehetasunak, koka gaitzen, bada, oraingoan lehiaketak izan zuen **bilakaeraz**¹⁵.

Hasteko, esan beharra dago, aurkeztu zirenen artetik bi egitarau geratu zirela nolabait esateko *finalerako*. Bonifazio Villabella industria gizonaren egitaraua ¡Amor al pueblo! goiburuarekin eta José Madinabeitia eta Nizeto Muguruza medikuena bestea. Dena den, azkar ebatzi zuten, ahobatezkotasunez Villabellarena izango zela programa saritua.

Gauza da handik hilabete batzuetara udalak egitasmo txukun bat argitaratu zuela ospakizunak ongi ordenaturik (zer, noiz, non), programa trinko eta aski zabala osatu zuelarik. Baina, hara ezustea, jendea sinetsia zelarik hura Villabella jaunari zegokiola, hara non irabazleak berak ohar baten bidez adierazten zuen, udalak plazaraturiko egitaraua ez zela, hurrik ere, berak aurkeztu zuena.

Egia da, udalbatzako partaideren batek haren programaren gabezia zenbait adierazten zituela baina egia da, halaber, Villabellak arrazoi osoa zuela bereari eusteko. Egitarau biak alderatzen baditugu ohartuko gara diogunaz. Hasteko, irabazleak Lore Jokoei eman nahi izan zien espiritua falta zen udalaren programan. Halere, esan behar, udalarena bestea baino askoz pragmatikoa zela, alegia, Villabellarenean falta ziren hainbat saio-mota agertzen baitira. Baina hori ez zen inondik ere Villabellaren errua.

1907ko abenduan aurkeztu zuen lanaren bilakaera ikusirik gure gizonak bere kontura argitaratuko du bere egitaraua. Bertan, sarrera bat egiten du bere arrazoiak argitzeko: ¡Al pueblo! eta ¡Preámbulo! deitzen dira, hurrenez hurren, sarrerako argitasunak.

“Tamalez -dio Villabellak- udalaren gehiengoak, errepublikano-sozialisten salbuespenarekin, nirearekin zerikusi handirik ez daukan programa bat kaleratu du,

Jose Madinabeitia. *Argazkia: Indalecio Ojanguren. Eibarko Udal Artxiboa.*





erruz, gainera”. Horregatik jendea ohar zedin berea argitaratzea erabaki zuen.

Gauzak horrela, merezi luke arestian aipatu dugun Villabellak bere egitarauari eman nahi izan zion espirituan gelditzea. Eta zertzelada hori, berak “preámbulo” deitzen duen 2. sarreratxoan erakusten digu.

Villabellak moral aldetiko Euskal Lore Joko neurritsuak nahi lituzke. Horrelako ospakizunek zer ez duten izan behar garbi dauka. Egileak herritar ordenazalearen estereotipoa agertzen digu, bere moralaren aldetiko kezka azalduz. Hain zuzen, orduko euskaldun askoren orekaren mundua aldeztu du: “no desdoro de la moral”; izan ere, haren iritziz beti ere “diversión honesta” bilatu behar da.



Erdian, Enrique Losada jauna; bere ezkerrean Fausto Mendizabal; eskuman Manuel Beristain (bokalak). Atzean, eskumatik hasita, Toribio Zulaica, Erakusketako batzordeburua. Ezkerretik, José Martínez Carrillo, Soroluzeko Kainoi Fabrikaren idazkaria. Bilbon, 1908ko irailaren 13an kaleratutako argazkia: El Nervión. Edición Especial Ilustrada. *Eibarko Udal Artxiboa*.



Eta *moral jatorrari* eusteko debekuaz kanpo deus gutxi egin liteke. Horregatik galarazpenaren esparrua handitu egin behar luke udalak, dio Villabellak. Lehenengo eta behin gaueko berbenek dakartzaten eta berak “achulapadas” deitzen dituen dantzak ekidin. Gero, hura ezinbestez erakartzen dituzten “los bailes de manubrio y sus congéneres”. Izan ere, arrazoa garbi dago: (...) “por considerarlos altamente inmorales”.

Dena den, eta ondokoa aipaturiko euskal ohituren aldeko jardunean berritasuna litzateke, hain zuzen, Villabellak bere soiltasun horretan kaletarrak eta baserritarrek bat egiten ditu moralaren ikuspegi hertsu samarrean. Koherentzia handiz kaletarrek beren ohitura onak zaindu behar badituzte, zer esanik ez menditarrek, tradizioak horrela agintzen baitu. Horregatik euskal dantzek nolakoak izan behar luketen diosku: “bailes separados formando una romería **puramente vaska**, (...) **donde no habrá más que tamboriles y dulzainas y bailes de auresku y jota**” (Beltzak gureak dira). Ohartu gabe agian, eta, tradizioa lagun, Villabella euskaldun>ohitura ondun axiomaren defendatzaile sutsu bihurtzen da.

Egitarauan zentratuz, hemen ere Villabella bere garaiko semea dugu. Nahiz eta haiek Euskal Lore Jokoak izena eraman, bera ez da horretaz ohartzen. Alde honetatik udalak bere egin zuen programa euskaldunagoa zen irabazlearena baino. Egia da, beste guztiek bezala pentsatzen duela, alegia, Jaiak izugarritzko plataforma bilaka daitezkeela Eibarko industria eskoizpenak azaleratzeko. Gainerakoa, festa da.

Villabellaren iritziz funtsezkoa, eta, neurri batean arrazoi zuen, kaletarren mundua zen. Bestea, baserritarren mundua, anekdota. Nahi gabe behar bada, ateratzen zaio ekuazioa: “costumbres euskaras=elemento labrador”. Baserritarra da noski, “el aldeano, el casero”, euskal kirolaren jasotzaile nagusia. Hain zuzen, maiz esan izan dugun bezala, Diputazioak Probintzia ordezkatzeko zuen. Horregatik Lore Jokoak ez ziren Donostian, hiriburuan, ospatzen. Desberdintasun hori argi ikusten zuten Eibarko industria gizon eta gainerako kaletar gehienek. Villabellak ere bai. Esaterako, berak Lore Jokoak zertarako diren dioenean: (...) “conservar las costumbres de los Vascos, sus bailes, sus juegos de fuerza y agilidad”, etab.

Hori oso ondo dago, esaten digu Villabellak **baina** (pero), eta juntagailu adbertsatibo honek Eibarren bestelakotasuna ederki laburbiltzen digu, Eibar desberdina da: (...) “veremos que Eibar se encuentra en distintas condiciones que otras villas puramente rurales”. Horregatik geure industria bultzatu beharra –zioen berak.

Arrazoibidea guztiz egokia zen ez baina beraren eguneroko gauzatzea. Izan ere, kaletar haiek erredukzionismo erraza eginez euskara bera ere euskal ohitura haien mailan jarritz, ohartuki edo oharkabean baztertu egiten zuten gure hizkuntza. Baina hau guzti hau euskara eta beste hainbat hizkuntza gutxituren tragedia historikoaren



muin muinean datza. Alegia, gizamaila jaso bateko jendearen hizkuntza bazterketa.

Hain zuzen, ikusten dugu euskararen presentzia, hau da, **Euskal** izena daramaten jai batzuen izanik ere, oso urria dela haren egitarauan. Hori bai, euskal kutsuko musika nahi luke orfeoi zein banda sariketetan, horretarako behin eta berriro *vasko* apelatibo darabilelarik. Deus ez, ostera, tradizioari atxikiz, ezinbestekoak ziren euskarazko idatz sariketen aipamenik, oro har, haur eta gaztetxoek euskaraz beren trebetasuna erakusteko saioez, **etabar**¹⁶.

Bestalde, udalaren egitarauak jasotzen ez duen puntua da baita, karitatezko ekintzena. Villabellak, Jaien inguruan, herriko pobreei dirua eta ospitaleko egoiliarrei janari laguntzak ematea proposatzen zuen.

Azkenik, herriko bi irakasle ospetsuri omenaldia egitea aurreikusten zuen. Hain zuzen, berrogeitaka urtez herrian maistra izan zen Gumersinda López de Guereñu andeari eta beste horrenbeste urtez marrazketa eskolako maisua izan zen Fausto Mendizabali. Beronek ere mende erdia burutua baitzuen irakaskuntzan. Udalak ez bide zuen aintzat hartu proposamen hau bai baitziren seguruenik beste horrenbeste merezi zutenak, beraien artean Zacarías Ramos maisu arabarra. Berau ere edozenbat urtez Eibarren jardundakoa eta une hartan erretiroan.



Zezen Plaza Untzagatik ikusita. Herri kirolak hor izan ziren.
Argazkia: Indalecio Ojanguren. Eibarko Udal Artxiboa.



Festa-esparruak

Eibarrek, duen orografia izanik, hain mota desberdineko ikuskizunak ongi banatu behar zituen ezinbestez. Hona ospakizunen kokapenak:

- 1.- Ibarkurutzeko Alhondiga. Bertan ziren eskola eraiki berrietan Arte eta Industria Erakusketa ospatu zen abuztuaren 20tik irailaren 20raino. Jende ugari bertaratu zen, herriko zein kanpoko, hango salgaiak **ikustera**¹⁷.
- 2.- Udaletxea. Kultur alderdia islatzen zuen. Bertan hitzaldiak, idatzizko sariketen ematea, antzez saio laburrak... horrelakoak ospatuko dira.
- 3.- Frontoi Zaharra. Udaletxeak berariaz bidea zabaldu behar izan zuen inguru hartan Nekazaritza eta Abeltzaintzako Feria ospatu zedin. Kontuan izan, 200etik gora abelburu jarri zituztela bertan. Esneki eta ortuarien artean ere denetarik erakusten zen, esku programan irakurtzen dugunez.
- 4.- Eliza. Elizkizun bereziak ospatu ohi ziren bertan, batez ere, salbea, abesturiko meza nagusia eta sermoia, gotzaina bertan zelarrik.
- 5.- Zezen-plaza. Barruti honetan herri kirolak (idi-probak, ahari-talkak, kukaiñak..) izaten ziren. Baita eibartar gaztetxoek osatzen zuten dantzari txikiek ere egiten zuten dantza, aukerako eraikiarazi zuten kiosko batean.
- 6.- Astelena frontoia. Artean lau urte baino ez zituen frontoia bere onenak emateke zegoen orduan oraindik. Festak zirela eta, bertan eskuzko pilota partida interesgarriak jokatu ohi ziren. Esaterako, Azkoitiko Txikitok Errezabalen kontra jokatu zuen eskuzko partida, 22 tantura sake librean. Berak irabazi zuen.
- 7.- Kalea. Eguraldia lagun, kalean giro aparta gertatzen zen. Hainbat kale apainduak eta edertuak, Alfonso XIII. plazan dantzaldiak, eta herrian zehar, kabalgata, txistulariak, banden desfileak, su festa gauez. Bada, Festen saltsa bertan bizi zela pentsa liteke.

1.3.2. Herriko Arte eta Industrien erakusketa: Jaien ardatza

Erakusketari berari zegokionez, Eibarkoak bazekarren desberdintasunik. Garbi zegoen 1908 hartan Eibarren industria munduaren presentziak ezinbestekoa behar zuela: armak eta damaskiñua guztien gainetik, hori agintzen zuen herriaren idiosinkraziak. Eta beharrak. Gainera, armen mundua ohikoa izaten zen krisietako batean sartua zegoen. Bada, erakutsi egin behar zen. Batez ere Estatu mailako agintarien aurrean. Zer egiteko gai ziren erakutsi.

Bestalde, nekazaritzaren ikuspegia ezin zitekeen ahantz. Horrela agintzen baitzuen tradizioak. Eta Diputazioa antolatzaile nagusi izanik, egin beharra zegoen. Edozein modutan garbi zegoen haren ospakizunak ez zirela, arestian aurreratu dugun



Damaskinatua. Sasoi hartako lana. *Argazkia: Museo del Palacio Real, Madrid.*

bezala, gidoi oso jakin batetik urrutiratzen. Eta beroietan baserritarren problematika oso hurbiletik jarraitzen zen.

Baina nahiz eta **Eibarrek nekazaritza** bizitza ere bizi zuela esan bazitekeen, argi zegoen industriagintzaren soslaia erakustea tokatzen zitzaioala udalari.

1908ko urtea esan daiteke herrian ospatu behar zituzten Lore Jokoengatik nolabait baldintzaturik datorrela. Ez Eibarrek erakusketa mailan ezer gutxi egin duela aurreko urteetan. Aitzitik, aspalditik datorkion industria tradizioari loturik, ez dira gutxi, 1908rako, urteetan zehar ospatuak izan diren erakusketak. Azkena, 1900ean Udaletxe berriaren inaugurazio zela eta. Baina oraingo honek, zioten



Nekazaritza eta ganaduen billaldiya-k Gipuzkoakoa ez ezik Bizkaiko ganadua ere erakarriko zuen Eibarrera. Gainerako ospakizunek ez bezala, feria hau irailaren 4, 5 eta 6an ospatuko zen. Ikusten dugun legez, kasuistika oso zabala zen. Bertan erabiltzen ziren hitzez ikus Eranskinean hainbat terminoren baliokideak. *Eibarko Udal Artxiboa*.



Pitxargain baserrikoak. *Argazkia: Indalecio Ojanguren. Eibarko Udal Artxiboa.*

lekukoek, aise gainditzen zituen aurrekoaren emaitzak. Horrelakoetan, normalki, herriko industriaren ekoizpenen erakusketa izan ohi zen. Gehienetan, orduan esan ohi zen bezala, *su(zko) izkiluak*. Baina oraingoan Eibarrek ekoizten duen edonolako produktu erakutsiko da.

Atzera apur bat eginez historian, ikusten dugu Lore Jokoak antolatzea egokitzen zitzaion herriak bere izaerari erreferentzia egiten ziola. Arrasatekoek bertako industriagintza berezia azpimarratzen bazuten beste horrenbeste gertatuko zen Bergarakoekin non, besteak beste, Erakusketa Etnografikoa burutu zuten. 1907an, berriz, Elgoibarrek nekazaritzazko alderdia nabarmentzen zuten. Zer esan bada, Eibarko Lore Jokoez. Eibarren ere bertoko produktuen erakusketa izango da izarra.




Herriaren eskuhartzea

Udal korporazioak ekainaren 10erako bazituen jai-batzordeak antolatuz. Alkatearen oharrean esaten den bezala, “aguazil bat eta Udaletxeko edozein lokal batzordekideen zerbitzura izango zuten”. Gauzak horrela, batzordeburuen izenak ezagutzen ditugu. Ildefonso Irusta, Festen alderdi ludikoaren ardura hartuko zuen batzordearen buru izango zen¹⁸ (“Fiestas públicas, músicas bailables etc.”). Jose R. Iriondo zinegotzia, Arte eta Industria Erakusketakoa; **Santiago Astigarraga, Ibagain**, berriz, Nekazaritza eta Abeltzaintzakoarena. Baina batzorde bakoitzaren azpian



Santiago Astigarraga, Ibagain, Herri kirol, proba etabarretan, Santiago Astigarraga Ibagain, izan zen batzordeburu. Astigarraga probazale amorratua, zinegotzi eta alkate izango da zenbait urte geroago Eibarko udalean. Bere zaletasunak, -gobernadore zibilak animalien probak debekatu eta berak bere kasa baimendu-, alkatetza uztera behartu zuen. *Marraskia: Lucas Alberdi.*



Ezkerretik lehenengoa Victor Sarasqueta. *Argazkia: Castrillo-Ortuoste Fondoa. Eibarko Udal Artxiboa.*

jende talde zabala ageri zen. Bazen doan laguntzeko prest zegoen beste norbait ere. Esaterako, Adolfo Zubia herritarrak bere jakituria udalaren esku uzten zuen: (...) “se compromete á instruir gratuitamente á una comparsa de Dantzaris para las próximas Fiestas Euskaras” (1908-07-10)¹⁹.

Baina egiazki jendea mugitu zuen batzordea, Eranskinean irakurtzen dugun bezala, Pedro Sarasketaren artikulua argigarrian, Arte eta Industria Erakusketa izan zen. Erakusketa zerbait izan bazen Eibarko produktuen erakusleihoa izan baitzen. Eta partehartzailea. Ia ehun pertsona-izen konta daitezke Sarasketaren artikuluan eta, zenbait urte geroago, Gregorio Mujikak bere Eibarko Monografiari erantsi zion informazio *osagarrian*²⁰. Gainerakoak, hots, nolabait alderdi ludikoa osatzen zuten era guztietako lehiaketa eta erakustaldi, bitez herri-kirolak, bertsolariak, abere-erakusketa etab., nago bigarren mailan geratzen zirela. Eibartar askorentzat




behintzat. Edo hobeto esateko, Erakusketa eurentzako ogia zen, gainerakoa jolas. Egia esatera, gauza bat da guk gaurtik izan dezakegun ikuspegi maiz subjeliboa eta beste bat, arras diferentea, jakina, ordukoek izan zezaketena. Dena den, Jokoetako atal bakoitzak izan zuen gertatze eta arreta, gehi orduko prentsak eman zion garrantzia, uste dugu aski erreferentzia izan daitezkeela diogunaz jabetzeko. Beraz, zenbait ardatz nagusi samar aipa daitezke hemen. Egia da, eta zalantzarik ez dugu, arestian aurreratu dugun bezala, zezenplazan izan ziren idi-proba, ahari-talka, etabarrek jende ugari erakarri zutela. Beste horrenbeste Astelena frontoiko pilota partiduetara ikusle asko bertaratu zen. Bertsolariek eurek ere zale ugari biltzen zuten. Baina Lore Joko batzuek beste zerbait gehiago behar zuten, batez ere, arestian aipatu dugun krisi ziklikoa jasaten zuen Eibarko **armagintzarentzat**²¹. Gertakizun horri nolabait itzuri egiteko, horrela ikusten zuen Hilarion Suinagak, jarduneko alkateak, abuztuaren 20an Erakusketaren inaugurazio ofizialean: “Eibarren damaskiñuak, zioen Suinagak, armagintzak lortu duen oihartzuna eta arrakasta lortzea gura genuke”.

Horrela bada eta hasteko, zalantzarik gabe, Ibarkurutzeko Alhondigan, Herriko Eskoletan, alegia, ospatu zen Herri Mailako Arte eta Industria Erakusketa genuke. Esan daiteke, Udalak zein herriko industria gizonen oso ongi prestatu zutela bertan herrian ekoizten zen ezer falta ez zedin. Arestian aurreratu dugun moduan, Sarasketaren artikulu bizian, ez da ia herriko industria gizonik falta, hain da luzea bertan ematen den zerrenda. Erakusketako Batzordea nortzuek osatzen zuten irakurtzea baino ez dago diogunaz ohartzeko. Presidentea: Toribio Zulaica. Batzordekideak: **Victor Sarasqueta**, Donato Sarasua, **José Felipe Artamendi**, Agustin Larrañaga, Pablo Aranzabal, Bonifacio Echave, Martin Antonio Bascaran, Manuel Beristain eta Miguel Anitua.


1.3.3. Nekazaritza eta Abeltzaintza Erakusketa

Adituak ez garenez nekez esan dezakegu ezer funtsezkorik erakusketa honetaz. Baina beti bezala orduko berriak irakurriz beraren garrantziaz ohartuko gara. Hasteko, garai hartan argitaratu zen programa irakurtzen badugu. Dena den, ohiko topikoetatik apur bat urruntzeko irakur dezagun orduko sindikalista batek egiten zuen Erakusketaren ebazpena. Arrasateko Andres Aranburu izeneko **sindikalistak**²², honela laburbiltzen zuen bertan ikusi eta eginikoa:

- Poztu egiten zen baserritarrak –nekazari zein abeltzain- honelako lekuetara biltzeko izan ohi zuen nagitasuna neurri handi batean apurto egin zelako.
- Bestalde, irailaren 6an, Vicente **Laffitte**²³ Diputazioko Nekazaritza eta Abeltzaintzako burua eta Alkartasuna euskal sindikatu katolikoaren sortzailea bertan zelarik, Gipuzkoako Sindikatuen Biltzarra ospatzen zela eta, Eibarren bertan, hura



Karmelo Etxegaraik "Cronista oficial de las Provincias Vascongadas", titulu hori erabiltzen zuen, hara eta hona, Zumaian jaio eta bere erudizioagatik ezen ez utzi zigun obragatik ezaguna izan zen idazlea. Bera izan zen hainbat Lore Jokotako kultur alderdiaren alma-mater-a. Oraingoan Lesarri Eibarko udal idazkariari esaten ari zaio osatu osatuko duela epaimahaia Monografia sarirako. Hain zuzen, P. Alzola errege senataria, Fernando Olascoaga eta bera izango ziren epaimahaikoak. *Eibarko Udal Artxiboa.*



Monografia lehiaketaren deialdia. Bi lan baino ez ziren aurkeztu. Biok baina argitaratuak izateko aukera izan zuten. *Eibarko Udal Artxiboa.*

probetxagarri gertatu zitzairen bertaratuei. Honako gaiak erabili zituzten, besteak beste:

- Baserritarren arteko aseguruak osatu beharra ikusi zen, abelgorrien artean hilkortasun handia baitzen.
- Herri eta eskualde mailako batzordeak osatzea erabaki zen zezen-estaltzeak egiteko araudia eta beraren betetzea finkatzeko.
- Probintziako herri guztietan egin beharreko basotzea bultzatzea.
- Udalerrien mende leudekeen basozainak sortzea.
- Abeltzaintzako osasun aginduak bete eta betearaztea.



1.3.4. Idatz sariketen izaeraz

Lore Jokoetako kultur ekarpenik handiena, euskararen eta, oro har, emankizun zenbaiten inguruan egiten zen ahalegina izan ohi zen²⁴. Horrelako ospakizunetan tradizio handia zuten, beraiei zerien sinbologiagatik, haur eta gaztetxoek munduak, eta, oro har, euskaltzaleak bere herriaren historiaz jabetu zitezten egiten zen ahaleginak. Ildo horretatik jotzen zuten, hain zuzen, sariketek. Aurrera dezagun zerbait sariketa haien nolakotasunaz. Haiek, oro har, Jaien kultur ezaugarri nagusi, Probintziaren ezagutza eta laudorioa zabaltzeko erabili izaten ziren. Batzarreko buruek irudikatua, lehiaketako idatzgaien zerrenda oso ugaria izan ohi zen; hasteko, Probintziako pertsonaia ospetsuen biografiek eta bestelako elezahar eta zertzeladek aipamen berezia izaten zuten. Nekazaritza-gaia beti agertuko da hari loturiko lehiaketa idatziren baten bidez. Halaber, antzezlanak, irakurtze eta idazte saioak etab. Kopuru edo modalitatez asko, literatur edo, oro har, kultur kalitate aldetik, oster, gutxi lortzen zen. Guztira, literatur sarientzako hamalau modalitate esleitzera iristen ziren bertsolari-txapelketa barne²⁵. Beraien artean arestian aipatu dugun haurraren munduari eskaintzen zitzaion arreta nabarmen daiteke, euskalgintzan tradizio handia zuen sinbologiari jarraipena emanaz, Jaiak 1882an nolabaiteko formatu berrian birsortu zirenetik²⁶.

Hemen ñabardura edo egiaztapen txiki bat egin daiteke sariketei dagokienez; Euskal Festek Probintziako euskalki nagusiaren alde egin nahi izango dute, nahiz eta dakigun bezala, ospatu ziren bost herritan, hau da, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgoibar eta Eibarren mendebaldeko euskalkia erabiltzen zen. Gipuzkera nagusitzen zihoan euskalkia genuen²⁷.

1.3.4.1. Monografia-sariketa

Hirugarren esparruan jarriko genuke, beraz, alderdi literarioa. Baina esleitzen ziren sari ugarien artean bat egiten zen deigarri. Hain zuzen, Kongsistorioak Donostiatik antolaturik ekarri ohi zuen sariketa sailari Eibarko udalak erantsi nahi zion sari berezi bat izango zen. Hain zuzen, Udalak 1907ko azaroan herriko *Monografia* onenari emateko antolatu zuen lehiaketa. (Ikus, Eranskinean, “Jaiei antolakuntza”).

Oraingoan ere, Diputazioak gidatzen zuen sariketa. Batzarreak, Aldundiaren aginduz, baldintzak jarri eta lanak epaitzen zituen.

Diputazioaren adierazpenek argi adierazten zuten zer helbururen bila jo behar zen. Lehenengo eta behin, lekua eta zergatia. Aspalditik aipatua izan arren, ekainaren 15ean egin zen deialdi ofiziala. Esleitzen zen dirutza ere harrigarria zen ordurako: 1000 pezeta. Ordura arte, oker ez bagaude, Lore Jokoek historian eta, horrelako sarietan, 250 pezeta izan ohi zen saririk gorena.



Sariketa baten baldintzapenak

Beste edozein iritziren aurretik gure arreta bereganatzen du nola horren denbora laburrean amai zezaketen ezer lehiakideek. Izan ere, nekez idatz zitekeen ezer ganorazkorik bizpahiru hilabetez. Horrelako sariketa batek gutxieneko ikerketa eskatzen zuen. Jakina, lehiakideek aurreko urteetako deialdien nondik-norakoa jakin jakingo zuten. Eta, noski, jakinaren gainean egonik, beren lanak prestatuz joan zitezkeen Eibarren ere deialdiak ez zuela aldaketa handirik izango pentsatuz. Irabazlearen kasuan, gainera, hots, **Gregorio Mujika** (1882-1931), ormaiztegitarrak bere aitaren esperientzia eta erudizioa erabili zuen. Hain zuzen, on Serapio Mujikak, artxibo ikuskaria berau, artean Gipuzkoako Udal Artxiboak atontzen ziharduen, lan eskergea egin zuelarik hainbat urtez. Eta, Eibarren kasuan ere, langai ugari utzi zuen bere semearen esku. Datu objektibo honek deialdiaren gardentasunean eragiten zuen **erabat**²⁸.



Gregorio Múgica. Monografia sariaren irabazlea.

Epaia eta hitzaldiak

Gauza da irailaren 5ean, larunbatez, gaueko bederatzieta, elizako Salbearen ostean kultur jaia antolatu zela Udal aretoan. Orkestra baten doinuak eta hitzaldiak bitarte, antolatzaileek “velada musical-literaria” deitu zuten gaujaia. Epaimahaiak Monografia irabazlea nor izan zen esango zuen eta, ondoren, hitzaldiak izango ziren, programak agintzen zuenez, Eibarko historia eta bere pertsonaiak goraiatuz. Hizlarien artean, Pablo Alzola errege senataria eta K. Etxegarai euskal jakintsu ezaguna.

Udal aretoan ziren, korporazioaz kanpo, Gipuzkoako diputazioko ordezkariak, Donostiako Batzarreko arduradunak, Lehiaketako epaileak, euskararen aldeko *Euskal-Esnalea* elkarteko jendea, A.

Campion presidentea ordezkatzuz, J. Bautista Larreta idazkaria buru, eta beste hainbat jende esanguratsu.

Iluntzeko 9etan, bada, hasi zen udaletxeko aretoan Donostiako Kontsistorioko Batzarreak antolatutako ospakizuna. Pablo Alzola, Fernando Olascoaga eta K. Etxegarai jaunek osaturiko epaimahaiak bere ebazpena eman zuen. Monografia lehiaketara bi lan baino ez ziren aurkeztu. Baina biak maila onekoak. Batez ere, Gregorio Mujikak aurkeztu zuena. Bigarrena, **Pedro Sarasketa** eibartar idazlearena



ere, saritua izan zen, hark ere bere kazetaritza estilo bizi eta atseginean ekarpen interesgarria egin baitzuen. *Arrate* eta *Eibar* goiburua zekarten lanek, hurrenez hurren.

Jarraian, Gregorio Mujika, 1. sariak, hartu zuen hitza. Idazle eta kazetari bipilak, bere lanaren ardatz nagusiak argitu zizkien entzuleei, eskerrak ematen zituela jasotako sariarengatik.

K. Etxegaraik Eibarko seme ospetsu zenbait gogoratu zituen. Ibarretarrak, Orbeatarrak, Untzeta leinukoak eta beste hainbat izen aipatu zituen bere erudizioa [erakutsiz](#)²⁹.

Alzola senatariak (1841-1912) horrelakoetan ohi denez, Eibarren panegirikoa egiteaz landa, merkataritza, industria eta soziologiaz jardun zuen. Besteak beste, Eibarren hazkuntza demografikoa zein ekonomikoa goraipatu zituen. Eibarko biztanleriak izan zuen gorakada nabarmendu zuen, bere kontaktan: 1877an 4.000 biztanle zituen herria izatetik orduko 8.400 izatera iritsia baitzen. Ildo beretik udalaren aurrekontua azken zortzi urtetan bikoiztu egin zela azpimarratu zuen. Bestalde, datu ekonomiko gordinetara joaz, ikusten zen [armen produkzioa](#) 1877tik laukoiztu egin zela. Baina agian berez datu soil baino ez zena izango, ondoren hizlariak eransten zuenak baikortasuna sortarazten zuen: Eibarko industriaren arrakasta frogatzeko produkzioaren %80 esportatu egiten zela adierazten baitzuen, beste lurralde aurreratu batzuetan, Katalunian, esaterako, datu hura %16an zegoen bitartean. Ego errekarren ibar estuan aritzen zirenen ahalegin eta adorea seinale garbia. Meritu are handiagoa, inolako berezko aberastasunik ez zuen herrian. Eibar, bada, eredu omen Espainia guztian. Gainera, Eibarren aspalditik gertatzen diren gizarte eta politikazko istiluek ez dute galerazi, zioen Espainiako Korteetako senatariak, industriagintzaren [aurrerapena](#)³⁰. Pentsa daitekeenez, Alzola jaunaren hitzaldiak txalo zaparrada handia jaso zuen.

Idazlanei sari ematea

Biharamunean, igandez eta arratsaldeko zazpitan, Donostiako Batzarrak antolatutik Lore Jokoetako sariak banatu ziren. Hasteko, Alfredo Laffitte dianagusi edo presidentek hitzaldia eskaini zuen gaztelaniaz. Interbentzio bakarra izan omen zen [erdaraz](#)³¹. Ondoren, Karmelo Etxegarai Vascongadetako kronikagile ofizialaren titulua berekin zeraman idazleak omenaldi xumea eskaini zion on [Resurrección M^a Azkueri](#) euskararen alde egiten ari zen lan eskeragatik. Hain zuzen, une hartan atzerrian ziharduen apaiz lekeitiarrak bere hiztegi erraldoia zela-eta. Etxegararen euskara garbi-goxoak txalo zarta handia jaso omen zuen.



Sari irabazlerik handiena zalantzarik gabe, Gregorio Mujika, Lore Jokoetako protagonistarik handienetako bat izan zen. Bi sari irabazi baitzituen. *Monografia* onenarena alde batetik, eta, bestetik, Lore Jokoen Batzarrak antolaturiko herriko seme ezagunei buruzko berriak bilduko zituen lanena. Mujikak, “Eibarko seme ospatsuen berri batzuek” lanagatik lortu zuen bere bigarren saria. Bertan eibartar 147 seme ospetsuen izenak agertzen ziren. Txaloak berari ere.

Ezin ahantz, sarituen artean, oraingoan musika alorrean, gazterik hil zen **Jose M^a Usandizaga** donostiar musikari handiak jaso zuen 250 pezetako saria *Euskal Festara* pasadobleagatik.

Toribio Alzaga, euskal ohitura antzerkigile ezaguna eta Batzarreko partaide bera ere, Ramon Inzagarai idazlearen olerki bat irakurri zuen, berotasun eta gogo biziz.

Gainerako sarien ematea etorri zen gero. Oholtzatik pasatu ziren irabazleak bertaratuen txaloen artean.

Eta festa amaitzeko, **Jose Artola** donostiar antzerkigile ezagunak *Motxa Donostiyan* eta *Praxku* monologo barrearazleak antzeztu zituen. Jendea algara bizian jartzeko abilezia izan zuen Artolak bere taula gaineko erraztasun eta xarma bereziarekin.

1.3.5. Eliz Ospakizunak

Festen ardatzak zeintzuk izan ziren kokatzeko ahalegin honetan, laugarren esparruan elizaren mundua sartuko genuke. Hain zuzen, XX. mende hasierako euskal gizarteak elizarekin zuen identifikazioaren mailako presentzia izango zuen erakunde hark Jokoetan. Lan honen hasieran aipatu dugu Lore Jokoek berekin zekarten tradizioaren goraiapatze eta zaintzea, besteak beste. Aipaturik geratu den foruak, erlijioa eta euskara hirutasun hartan, ahalegin berezia jartzen zuten antolatzaileek, zalantzarik gabe, erlijioaren goraipamenean. Gai-ordena jakin bati atxikirik, Lore Jokoz-Lore Joko errepikatu ohi ziren erritu bertsuak. Batez ere meza nagusiaren bidez, bertan apaiz ospetsu batek egiten zuen euskarazko hitzaldia gailentzen zelarik. Edo prozesio jendetsuaren bitartez. Oro har, aipaturik geratu den 1898. urtean Pavia diputatuaren proposamena honela zihoan: hasteko, data eta bestelako, finkaturik geratzen dira lehenengo kapituluan; bigarreanean, ostera, honako hau dio: (...) 2º “La función religiosa del primer domingo de julio dará principio con una procesión. El sermón que se pronuncie durante la solemne misa del domingo, habrá de ser precisamente en **vascuence**”³².

Esaterako, alde zurretik erabakirik geratzen zen zein apaiz ezagun ekarriko zen Jaietako meza nagusian sermoia ematera. Dena lotzen zen, eguna, ordua eta hizlariarentzako diru-saria. Izen batzuk aipatzearen, ikusten dugu nola 1898ko



Eibarren antzinako erara egin zen prozesioa. Inskripzioak dio “Eibar a su Reverendísimo Prelado”. Bilboko El Nervión aldizkarian aterata zen 1908ko irailaren 13an. *Argazkia: Vicente Dorda. Iturria: El Nervión. Edición Especial Ilustrada. Eibarko Udal Artxiboa.*



Zestoako Jaietan Txomin Agirre eleberrigile ospetsuak hartu zuela esku, 1903koan, Irunen, Leandro Jutok, 1906an, Hernanin, berriz, Alfonso Zabala apaiz integrista mitinzale ezagunak; Elgoibarren 1907an, Jesusen Lagundiko aita Laskibarrek jardungo zuen. Azkenik, Eibarrera Albisturreko parrokiatik Juan Jose Alberdi apaiza etorriko zen hizlari.

Lore Jokoetako eliz ospakizunak

Eibarko eliz ospakizun nagusiak irailaren 5ean eta 6an izan ziren. Zehatz esateko, Jaien ardatzean, 5, 6 eta 7 izan baitziren Lore Jokoetako egunik garrantzizkoenak.

Irailaren 5ean hasteko, goizean goiz nekazari eta abeltzaintza erakusketa hasi zen Frontoi Zaharraren inguruan; zezenplazan, berriz, idi-probak, bertso-saioak eta, herri kirolak. Arratsaldean, Probintziako diputatu eta gainerako agintariei egin zitzaizen harrera estaziñoan.

Gaueko zortzietan hasi zen elizkizuna parrokiaren. Kronikariek diotenez argiztatze bikaina zeukan elizak bertaratu ziren hainbat eta hainbat eliztarri ongi etorri esateko. *Orfeón eibarrés* abesbatzak, 90 lagunez osatua, kantatu zuen bertan, on Crispulo Guisasola buru zutelarik. Laurent de Rillé-ren Salbea. Ondoren, Orfeoi berak San Jose ikastetxeko *La Juventud* abesbatzarekin batera, kronikek zehazten ez duten ereserki eder bat kantatu omen zuten.

Beste eliz ospakizun handi bat geratzen zen. Biharamunean, irailak 6 zituela, goizeko 9ak inguruan, atera zen parrokiatik prozesioa. Bertan zihoazen Loiolako Inazioaren eta Ama Birjina Sortzez Garbiaren irudiak, biak ala biak Diputazioak utziak. Diputazioaren estandartea jaun diputatuetakoa batek zeraman. Herriko kale batzuetan barrena ibili ondoren, 10etarako parrokiara itzuli omen ziren.

Eliza jendez lepo zegoela 10:00etan meza nagusia hasi zen. Gotzaina buru zela, berriro ere *Orfeón eibarrés* delakoak, C. Guisasola gidari, Eslavaren meza ospetsua abestu zuen. Albisturtik etorria zen Juan Jose Alberdi apaizak osatu zuen sermoia, “Fedea eta Lana” gaia harturik. Elizan bertan ziren udalbatza, diputatuak eta gonbidaturiko pertsonaiak.

Parrokia eta gainerakoak: bazterketa elizan?

Garbi zegoen 1908ko Jaiak adostasunean ospatzea izan zitekeela lortu beharreko helburua Eibar moduko herri baten zeinetan pindar txikiena aski baitzen betiko bandoak azaleratzeko. Oro har, erlijio arazoak izan ohi ziren sua pizten zutenak. Ongi ulertu behar da gure ustez erlijioaren erabilera zela arazoak sortarazten zituen inondik ere ez eibartar gizabanakoaren fede hauste, are gutxiago apostasiarik. Liburu



mardul bat idazteko langaia genuke eibartarren arteko bat ez etortzeak erlijioaren auzian bildu behar izango bagenu. Bazirudien, dena den, denbora historikoan kokatuz, Eibarren politikoki XIX. mendeko hainbat hauteskudetan nagusi gertatu zen errepublikanismoari liberalismoaren ikuspegitik agertu zitzaion nolabaiteko jarraitzaile zen sozialismoak egiten zituen jendaurreko aitortpenek, adierazpen askatasunetik eginak, guztiz zilegiak beraz, Eibarko elizgizon zenbait are deserosoago sentiarazten zituztela³³. Baina ez da horrelakorik. Oraingo honetan behintzat. Izan ere, orduko berriak irakurtzen baditugu, konturatzen gara, bi orfeoi bazirela Eibarren. Bata, aipatzen ari garen *Orfeón eibarrés*, bestea orain arte aitatu ez dugun *Orfeón Vasco-fuerista*. Biak Gisasolatarrek zuzentzen zituzten. Lehenengoa, Crispulok, bigarrena, Juanek. Badirudi, dena den, elkar ezinkusia beste nonbaitetik datorrela. Harira joaz, ondoren transkribatuko dugun manifestuak -bere testuinguruan kokaturik- orduko parrokoaren jarrera itxia agertzen digu. Laburbilduz, hark ez du nahi *Orfeón Vasco-Fuerista*-ko zenbat partaide bere parrokian sar daitezen kantura, beraien fedea ez baitzaio, bego bere horretan erredundantzia, fidagarri.

1908ko ekainean “Al pueblo Eibarrés” izeneko panfletoa argitaratu zen herriko Fernandez y Diego inprentan inprimatua. Gauza da, Lore Jokoen barruan, herriko orfeoiak parrokian kantatzeko zirela. Panfletoan Orfeoiko arduradunen sarrera baten ondoren herriko parrokoaren arrazoiak entzuten dira eta, gero, besteen erantzuna. Testuaren hasieran bere egileek honako hau diote, besteak beste:

Habiendo correspondido este año á Eibar el turno para la celebración de las Fiestas Euskaras, pocos pueblos como éste, por los elementos de que dispone, por el carácter franco y expansivo que une á su cultura, podrían dar más brillantéz al programa de tan típicas solemnidades.

Pero no sabemos porqué clase de influencias y manejos, todo parece haberse conjurado para que esas fiestas pierdan su esplendor y queden reducidas á términos que no están en consecuencia con la dicción y con el lustre de que deben estar revestidas.

Por los sentimientos musicales que en este pueblo palpitan, por la circunstancia de haber formado dos orfeones, la fiestas religiosas hubieran sido de una grandiosidad imponderable, si una mano hábil e imparcial hubiese manejado los muchos y valiosos elementos que podían cooperar al más brillante resultado de las fiestas. Pero en vez de buscar esa armonía y esa suma de elementos, solo se ha procurado buscar



dificultades y antagonismos, como lo prueba la siguiente carta que el señor cura párroco envió á la junta directiva del Orfeón Vasco Fuerista Eibarrés.

Dice así la epístola, literalmente copiada:

Hain zuzen, ekainaren 18an Agustin Embil parrokoak *Vasco Fuerista* Orfeoari gutuna helaraziko dio. Hona hark dioena:

(...)Tengo el honor de poner en conocimiento de usted que la Junta de Fábrica y el Cabildo de esta parroquia han pensado que las solemnidades religiosas de las próximas Fiestas Euskaras canten la Salve y Misa Mayor la capilla que ordinariamente canta en el coro en las festividades del año y los orfeones de esta villa.

Mas como á la Iglesia no le es ni puede serle indiferente cuanto á las ideas y costumbres religiosas de los que en sus templos cantan ó han de cantar, se refiere, claro es, que no puede consentir que suban al coro aquellos de los cuales por su modo público de ser, podría decirse con verdad que le toman por un escenario, siendo su presencia en aquel sagrado recinto un escarnio escandaloso lanzado á la faz de los buenos, y lo que es peor, una ofensa á Dios Nuestro Señor.

Por esta consideración que desgraciadamente no debe olvidarse, tratándose de nuestra localidad, si los orfeones de la misma aceptan la presente invitación para las indicadas solemnidades religiosas, el director de cada una de tales entidades deberá presentar al que suscribe, una lista ó relación nominal de los socios dispuestos á prestar su concurso, á fin de que examinando los antecedentes relativos á cada uno, obrantes en dicha parroquia, manifieste su conformidad ó proponga las exclusiones precedentes, si lo que no espera, á ello hubiera lugar, debiendo entender todos que es muy grato á Dios que hombres de matices políticos pero católicos al modo que enseña la Iglesia, se unan para glorificarle.

Constituida la entidad coral con la capilla y los dos orfeones en la forma dicha se le proporcionarán las obras que han de cantar.

La dirección será encomendada al señor Esnaola ó también puede quedar encomendada á ustedes señores directores de ambos orfeones si se ponen de acuerdo, en cuyo caso uno dirigirá la Salve y el otro la Misa, según el resultado del sorteo que tendrá lugar un momento antes de empezar la solemnidad, pero los ensayos serán dirigidos por ambos maestros.

Al contestar aceptando cada director dirá á la vez la retribución que esta parroquia debe pagar á su respectivo orfeón.

Dios guarde á usted muchos años. Eibar y Junio 18 de 1908

Agustin Embil



La Marcial Banda. Argazkia: Castrillo-Ortuoste Fondona. Eibarko Udal Artxiboa.

Aipaturiko Orfeoiko Zuzendaritza batzordearen erantzuna dator ondoren:

Señor Director del Orfeón Vasco Fuerista Eibarrés

En vista de los términos y tendencia de esa carta, la junta directiva del Orfeón Vasco Fuerista se consideró excusada en absoluto, no solo de tomar parte en las solemnidades religiosas, sino aun de dar respuesta alguna al autor de tan curioso documento.

¿Porque cuál sería la Entidad que deja en manos de una persona extraña á la Sociedad el apartado de sus individuos por causas ajenas á sus funciones y deberes en la Sociedad? ¡Ninguna! Este es el motivo que esta Junta ha tenido para no tomar en consideración el anterior escrito, respetamos la personalidad firmante en toda clase de sus funciones, pero no así su documento en su forma redactado.

Y para terminar diremos que hay quienes suponen que el Orfeón Vasco Fuerista solicitó del señor párroco que se le permitiera tomar parte en las repetidas funciones



religiosas, y le interesa á su Junta directiva hacer constar que no hubo tal solicitud, como así se desprende del propio contenido de la carta. El Orfeón Vasco Fuerista hubiérase honrado mucho cooperando con sus pobres méritos á la mayor severidad y fausto de la Salve y de la Misa, pero las pretensiones tendenciosas del párroco le ponen en el trance de no participar de ese honor.

Ahora el público juzgará el proceder de toda vuestra conducta al no atender á semejante escrito y el proceder de su firmante de querer exigir términos y obligaciones ajenos á los fines de las masas corales.

La Junta Directiva

Albiste haren jarraipena egiten badugu, ohartzeko gara parrokoaren debekua bete egin zela, Lore Jokoetarako emankizunaren inguruan behintzat. Alegia, *Vasco-Fuerista*-koek ezin izango zuten Jaietako meza *solemne* delakoan kantatu arestian aipatu dugun arrazoiagatik. Orfeoiaren ideologia liberal kutsukoa izan ote zen arrazoi? Bere abeslari batzuen izenak ongi ezagutzen ditugu. Debekua nonbait aipatu dugun egun berezi horretarako zen. Aurretik ez zen itxuraz horrelakorik. Izan ere, jakin badakigu esaterako, Lore Jokoen aurretik, abuztuaren 16an, igandez, adibidez, Juan Guisasola ospetsua zuzendari, bere anaia Julio pianoa jotzen eta, Orfeoiak, Eslava maisuaren meza kantatu zuela arrakasta handiz. Bertan ziren kantuan, besteak beste, Arizmendi, Basterra, Bidarte, Illarramendi, Iraolagoitia, Iriondo eta Trocaola herriko **kantariak**³⁴.

1.4. Belaunaldi zaharren Lore Jokoak Euskalgintza testimoniala

Ondoko lerro hauek Eranskinean eskaintzen dugun Karmelo Etxegarairen artikulua bat aitzakia harturik, XX. mende hasierako euskalgintzari hurbilketa bat egiteko baliatuko ditugu. Aipaturiko lanak, Lore Jokoen antolatzaile eta bultzatzaile batek idatzia, sari bat jaso zuen 1908ko idatz sariketan. Guk Eranskinean jaso duguna luzeagoa zen idazlan baten parte **da**³⁵.

Etxegarai XX mende hasierako euskalgintzak zituen gabeziei (batzuei ez guztiei) begirada luzea egoten die. Batzuk exogenoak edo kanpotikakoak ziren, gure hizkuntzaren mendetako estatus atzerapenaren ondorio, besteak endogenoak edo barrukoak, etxeko askok, oro har, euskarari eman beharreko indarrak axola handirik ez zuten garaikoak. Euskarak berak, kultur hizkuntza bezala zekarren atzerapena aipatu gabe. Ez baitzeukan, hasteko, orduan oraindik, prosa eredu garbirik, Etxegarai beraren artikulua lekuko. Bestalde, XIX. mendeko gizarte hartan arestian aipatu dugun Manterola eta bere garaikideek zailtasun handiak izan zituzten gure 2.



Eibar-ko euskal festak

EUSKAL-ITZ JOSTALDIEN EGINTZA

EUSKAL-itz jostaldien Batzarrea dator gaur Eibarra, kontu ematera leku ontan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakoa dan, aurtan, izkribatzalle, musikalari, eta pintatzalleen indar-neurtzetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiz ikusi ondorean aurkestu diran moldaera guziak, irabazi dituzte sariyak, izkribatzalleen artean:

Gregorio Mujika, Karmelo Echegaray, Abelino Barriola eta Ramón Inzagaray jaunak, «*Eibar-ko seme ospatzuen berri batzuek*», «*Donosti-ko Euskal-itz jostaldien Batzarrea*» «*Meza berriya*» eta «*Poza atozkit*» izendatutako lan egokiagatik.

Irabazi dituzte aldeerak: Inazia Pradere eta Ramón Gelbenzu jaun andriak, «*Eibar-ko seme argidotarrak*» eta «*Betiko pena*» izentzat dituztenen gatik.

Irabazi dituzte bina aipamen onragarri: José Elizondo eta José Inazio Garmendia jaunak; lenbizikoak «*Eibargatikan*» eta «*Gaon*» izendua gatik, eta bestiak «*Gipuzkoa-ko, euskerazko itz-jostaldien Batzarrearen bir osaera*» eta «*Lunaren goimenak*» izentzat dituztenen gatik. Aipamen onragarri bana Enrike Elizechea, Jerónimo Elizegi eta José Olaizola jaunak, «*Ordikeria*» «*Soilmena*» eta «*Markesa'ren alaba*» izenekoa gatik.

Indar-neurtzez kanpora saritu da *Erderaz eta euskeraz itz egiteko esku-liburua*, Isaak Lopez Mendizabal jaunak egiña, eta Euskal errirako biar biarrekoa Batzarreak arkitu dubena.

Musikalarien artian irabazi dituzte sariyak José Maria Usandizaga eta Inazio Bereziartua jaunak «*Euskal festara*» eta «*Uztailaren 22^{an}*» azalkaitzat dituzten moldaeragatik.

Euskal-itz jostaldien Batzarreak bere ebazpena ematen zuen. Eta, lan honetan barrena aipatu izan dugun endogamia gertatzen zen. Mujika, Etxegarai eta beste batzuek hoberik ezean euren artean banatu ohi zituzten sariak. Mujikak, esaterako, bi sari bereganatu zituen Eibarko Jokoetan. Bazen, dena den, idatz sariketetako irabazleen artean eskuhartze noizean behingoa egiten zuena. Inazia Pradere izena adibidez, "Eibarko seme argidotarrak" lanaren egilea berau, Euskal Esnalea aldizkarian argitaratu zituen hark zenbait lan. Blas Pradere Arrutiren arreba zen. Hau hainbat Euskal Lore Jokotan sariak irabazitakoa zen. Oñatikoak ziren. (Añamendi entziklopedia, 39. liburukia 137-138. orrialdeak).



Jacinto, Valentín eta Juan Orbeak fundatu zuten 1860an Orbea enpresa. Argazkia 1913koa da.
Castrillo Ortuoste Fonda. Eibarko Udal Artxiboa.



karlistaldiaren osteko gipuzkoar gizartea iratzartzeko hizkuntzaren nolabaiteko Pizkundea abian jar zezaten. Pizkundea izango zen hitz magikoa, baina Etxegarai moduko euskaltzaleentzat (1865-1925), iraganaren zama oso astuna bihurtzen zen, ez agian horrenbeste diagnosis egiteko garaian: euskarari eutsi egin behar zitzaion, leku guztietara hedatu etab., -kultur hizkuntza bilakatzearen asmoa geroago etorriko zen, bai, ostera, lan prozedura zabal eta bateragarria aurreikusteko garaian. Ikus dezagun.

Euskalgintzaren historia Gipuzkoan XIX. mende amaieran eta XX. hasieran berrikusten badugu, hura taldexkatan aritzen zela ohartuko gara. Gipuzkoar gizartean eragina izatekotan, oso une berezietan izaten zuten. Donostia kokagune nagusi zuelarik, erritua bailitzan, festa kutsua izaten baitzuten gehienetan, San Tomas, Santa Ageda, Gabonak eta horrelako ospakizunetan sentitzen ziren. Egun bateko ohiko idatz-sariketak, bertsolariak, haurrentzako *oguzte* eta idatzizko saioak eta beste ezer gutxi. Lore Jokoek, berriz, arrandiotsuagoak eta diruz ongi hornituak, beste maila handiagoa erakutsi nahi izaten zuten, erakartzen zuten jendetzarengatik ez bada ere.

Diputazioak bere babesa ematen zuelarik ere, arestian aipaturiko talde eta taldexkek, mamu itxurako izakiak ziruditen, euren izena noizbehinka azaldu, baina gero aldi batez beraien berririk ez baitzen izaten. Barrura euren txikitasunera begira ari ziren euskaltzaleak ziren, euskalgintzaren apurrak, horrelako jai eta ospakizunetan jasotzen zituztelarik, kutsu endogamiko garbia zuen *jardueran*³⁶. Gauzak horrela, *Sociedad Vascongada de Amigos del País*, ondoren M. Soroa antzerkigile ezagunak 1896an osatu zuen *Euskaldun fedea* taldexka, edota aipatzen ari garen *Batzarrea*, bai eta gero etorriko zen *Euskal-Esnalea* etab., bada, guztiak euskararen sua mantentzen saiatzen ziren, bereak sua baino pindar ahula gehiago bazirudien *ere*³⁷. Zer gertatzen zen bada, euskararen bulka nabarmenago senti ez zedin gipuzkoar bihotzetan? Arrazoiak bat baino gehiago ziren. Arestian aipatu ditugun arrazoi exogenoak hobe ez ukitzea, denon lokietan baitabiltza: hasteko, euskarak gipuzkoar gehienek hizkuntza bakarra (!) izan arren, ez zuen inolako sarrerarik geroz eta unibertsalagoa zen Estatuaren hezkuntza sisteman (XX. mendearen 1. herena giltzarri izango da Probintziaren deseuskalduntze bidean, Primo de Rivera jeneralaren agintaldia, 1923-1930, esaterako). Bestalde, ekonomia-munduaren legea eremu zabaleko hizkuntzak eskatzen hasia zen, nagusiki. Autarkiak berea egina zuen, bertoko enpresek geroz eta harreman handiagoak izan ohi zituzten *kanpokoekin*³⁸. Zer esanik ez nekazaritza bizitzaren gainbehera iragarria. Inmigrazio erdaldunak zekarrenaz batera, euskararen habia izan ohi ziren baserri eta herrixka asko bizilagunez eta, batez ere usadioz, aldatzen hasiak ziren, industriagune berrietarantz hedatuz (*Pasaialde, Irun...*)³⁹. Aurrekari larri hauen aurrean zer eskaintzen zuen garaiko euskalgintzak? Ezer gutxi.



Juegos florales de 1908 en Eibar

TRABAJOS PRESENTADOS

CERTAMEN LITERARIO

Número según orden de recibio.	LEMA Ó TÍTULO	Tema ó materia con anejióñ al programa.
1	Gezurra diruri	4. ^o
2	Ametz bat diruri	4. ^o
3	Lanaren goimenak	5. ^o
4	Mendiburuko maizterra	3. ^o
6	Alperraren somakayak	4. ^o
7	Ero algara	4. ^o
8	Gora ta bera	3. ^o
9	Agur nere aingerua	3. ^o
12	Meza berriya	4. ^o
13	Gipuzkoa-ko, euskerazko itz-jostaldien Batzarrearen bir-osacra	2. ^o
18	Bereziko lorea	3. ^o
20	Somaketa	3. ^o
21	Somaketa	3. ^o
22	Oyian	3. ^o
23	Limoi ura	3. ^o
25	Somaketa	3. ^o
26	Aita onaren jolasa	3. ^o
28	Zipladak eta Zapladak	4. ^o
29	Miren	4. ^o
30	Joshe-Maritarra	4. ^o

Ez zen erraza hainbeste sariketa mota eta sailen artean euskarazko idazlanak aurkitzea. Literatura, pintura, musika denetik izaten zen. *Eibarko Udal Artxiboa.*

Hasteko, herriarengandik urrun ikusten ditugu orduko euskaltzaleak. Gainera eta, tamalez, erdaraz bizi ziren pertsonaiak genituen euren kultur ekoizpenean euskarak tarte oso txikia zuelarik. Karmelo Etxegarai berau dugu lekuko.

Bigarren gabezia sentsibilitate kontua zen. Euskaltzale haiek ez zekiten, ezin jakin, gizartearen industria bilakaerak ekarriko zuen iraultza hizkuntza jarreretan ere. Industriaren Gipuzkoa lekua jaten joango zaio nekazaritzaren Gipuzkoari biziera



berri baten zantzuak geroz eta nabariagoak zirela. Argi zegoen guztiak egituraketa berria eskatzen zuela: euskalgintzaren neurribideak egokitu egin behar ziren. Ospakizunak ere, Lore Jokoak eurak, alegia, aldarazi egin beharko zituzten. Azkenik, ideologiaren auzia zegoen: euskaldun fededun axioma sekularra nagusi zen erabat euskaltzale haien baitan, eta hark ere, egokitu egin beharko zuen. Baina egia esatera, orduan oraindik urrun ikusten zen eragilea zirudien.

Ez da harritzekoa, bada, zume horiekin saski hauskorregia egitea. Garaiko euskaltzale batzuek, Sabino Arana beraien artean, gogor kritikatuko dituzte Lore Jokoetako xalotasun eta ideologiazko noraeza. Ildo beretik, geroago etorriko diren euskaltzale nazionalistek, Lauaxeta bera eta, nagusiki 1927an sortu zen *Euskaltzaleak* mugimenduaren bultzatzaileek, **J. Ariztimuño**, *Aitzol* buru dutela. Egia da, baita ere, XX. mendeak urteak betetzen zituen heinean, euskalgintzaren mesedetan, zuzen edo zeharka, hura hobetu zezaketen elkarte eta erakundeak agertzen joango direla. Guztien artean, **Eusko Ikaskuntza** 1918an eta **Euskaltzaindia** urtebete beranduago aipatuko genituzke, arestian izendatu dugun *Euskaltzaleak*-ekin batera.

Karmelo Etxegarairen artikulua ematen dugu XX. mende hasierako euskaltzaleen kezka eta arranguren norabidea erakusteko. Lore Joko eta, bidenabar, urtean zehar *Batzarreak* antolatu ohi zituen idatz sariketez ari da batez ere artikulugilea. Musikaz (eresiaz) ekiten dio bere arduren sailkatzeari idazle azpeitiarrak. Eresi, kanta onak behar dira diosku Etxegaraik “euskera zarra geroago eta ederkiago apaintzeko”. Zail da eresi berri onak sortzea baina “indar-neurtzea”, lehiaketak, alegia, mantendu egin behar zirela pentsatzen zuen.

Olerkia bada ere hizkuntza guztien haurtzaroan sortu zen literatur genero behinena, ba omen zen garaia, Idatz Sariketak Donostian sortu zirenetik 1879an, prosa-lanak are gehiago bultzatzen hasteko, hots, “itz-neurrigabeen” eginiko lanak. Izan ere, neurtitzak, olerkiak, “belarriari poz handia eman diezaioketen arren, barrendik hutsak izan daitezke”.

Halere, hizkuntza handiek sorturiko literatura unibertsalaren ametsa dago euskararentzat ere. Hau da, hizkuntza talde bakoitzak ikur bezala munduan harrotasunez erakutsi ohi duen obrarik gailena. Gai errepikaria, Aitzolek 20 urte beranduago jasoko duen mezu berbera dugu, esna ametsetan egitekoa, euskal literaturaren historian, maiz agertuko dena: Cervantes edo Manzoni-k sorturiko lanen parean guk geuk hemen zergatik ez ditugu geureak **sortuko**⁴⁰.

Nahasi dabil Etxegarai, oilanda bihurria bezala, buru-urduri, han-hemenka mokoka. Jokoetako idatz sariketan, “kondairari”, hots, “errietan esaten diran sukalde-basterreko ipui ta esaerak bildu”, genero horri ere, garrantzia eman beharko litzaioke.



Biltze-lana, lan etnografikoa, alegia, egitea proposatzen zuen.

Elkarteak behar lukeen sendotasunaz ari da baita ere Etxegarai, baikor delarik datozen erronkez, baldin eta gure aurretikoek bezala jardungo bagenu, izutzea, ez baitago, ez bailuke euskaldunen aldarlean egon behar.

Adorea eskatzeaz batera, idazle azpeitiarrak Euskal-itz-jostaldien Batzarrean gertatu izan diren heriotzak zenbatzen ditu. Bihotzminak jota dirudi, asko direlako joanak. Baina gazteen ekarpenarekin bideratuko omen da: “aritz zar eunka urteak dituztenak, urteoro ostoa berriz apaintzen dira”. Euskara izan liteke metafora honetan haritz zaharra, ostoa euskaltzaleak. Egia esatera, Etxegarairen hitzak gorabehera, euskalgintzak umezurtz jarraituko du hainbat urtez, pertsonen eta ez erakundeen indarrean sostengatzen delarik. Gregorio Mujika bera dugu lekuko.

1.4.1. Ideologia

Euskal izaeraren galeraren kezka bere isla izango zuen. Aurrerapauso herabeak ziren baina Gipuzkoako intelektual eta agintarien aldarlea adierazten zuten nolabait. Zehazki zein bide hautatu ez zuten garbi ikusten baina mugimenduak izan baziren. Esaterako, 1907an, euskaltzale batzuek *Euskal-Esnalea* elkarte sortuko dute Diputazioaren babesean. Euskararen eta arestian aipatu dugun euskal izaeraren etorkizuna ardura *bakarra* dakarren bazkun sortu berriak Euskal Festen antolakuntza eta, zuzen adieraziz, lehiaketan eduki ideologikoa gidatzeko ardura hartuko du. Hau da, haien alderdi kulturalaren aholkulari eta antolatzaile izango dira. Lore Jokoak ez zitezen soil-soilik “nekazaritza eta ganaduen billaldiya” izan⁴¹. Esanak geratu diren Karmelo Etxegarai azpeitiarraren hitzek haien norabidea zein izango den iradokitzen badigute ere, ondokoak egoki adierazten du zer-nolako tematika interesatzen omen zitzaien euskaldunei:

(...) las cosas que nos son peculiares, y que debemos estimar en grado más alto cuanto más ungidas aparecen por el óleo de la tradición⁴².

Hitzok, hain zuzen, D. Agirre eta Campionek ere sinatzen zuten 1913ko Tolosako Jaietarako aurkezturiko txostenean isuriak izan ziren. Etxegarairen eta bere lagunen txostenak, Euskal Festak zirela-eta, euskal iragan zoriontsuari kantu handi bat izan ohi ziren. Dena zen historia. Xehetasun guztiekin pintaturiko ehun errealista. Horrelakorik islatzen zuten idatzizko sariketetako gaietan. Hots, iragana hobekien erakusten zuten ola-gizonak, folklorea, efemerideak etab., behar ziren ezagutarazi.

Laburbilduz, ikusi dugun legez, ugari ziren kultur ospakizunek, zuzen edo



Fiestas euskaras en Eibar

Prueba de bueyes, juegos de barra, peleas de carneros, etc.

Pruebas de bueyes.—Se dividen en dos grupos:

1.º Para animales vacunos de más de diecisiete cuartas entre los dos. Primer premio 250 pesetas. 2.º premio 125 ptas.

2.º Para animales vacunos de menos de diecisiete cuartas entre los dos. Primer premio 150 pesetas. 2.º premio 75 ptas.

La medición del ganado se hará poniendo un kilo de peso en cada punta del cordel á cada lado del animal.

Cada pareja trabajará media hora con dos arreadores arrastrando la piedra panal de Eibar.

Las demás condiciones de la prueba serán las de costumbre en la plaza de Eibar.

Las pruebas se jugarán el día 5 de Septiembre á las horas que designe la Comisión y las inscripciones se admitirán hasta el día 25 de Agosto inclusive. Al hacer la inscripción habrá que depositar 40 pesetas por pareja, las cuales podrán recojerse una vez verificada la prueba de la pareja correspondiente.

Juego de barra.—Se jugará con una barra de 8 Kgs. de peso y largo de 40 á 45 pulgadas. El juego será á pecho y media vuelta; costumbre antigua ó sea agarrando á la barra por el medio y sin mojar; se colocarán dos reglas á distancia de 14 pulgadas desde dentro de las cuales deberá lanzarse la barra, también á la antigua costumbre. Primer premio 120 pesetas. Segundo premio 85 pesetas.

El juego se verificará el día 6 de Septiembre á las horas que designe la Comisión y las inscripciones se admitirán hasta el día 25 de Agosto inclusive.

Cada individuo que se inscriba depositará 20 pesetas que se le devolverán despues que haya hecho su juego.

Peleas de carneros.—La Comisión, deseosa de que en las fiestas figuren buenas pruebas de carneros, subvencionará con cantidades en relación á la importancia de los juegos.

Estos tendrán lugar el día 6 de Septiembre.

Se estipularán diferentes premios para Bersolaris, Irintzalaris, etc.

Para inscribirse y demás detalles dirigirse al Presidente de esta Comisión Don Santiago Astigarraga (a) Ibargain.

Eibar 12 de Agosto de 1908

La Comisión



zeharka, hots, literatur sariketek, bertsolari eta haurrentzako ekitaldiek; azken buruan, euskal kutsuko ospakizun orok (abesbatzak, aurrekulari txapelketak, banden emanaldiak), euskara bultzatzen zuela pentsatu behar ote dugu? Hari loturik, nekazari eta baserritarrentzako erakusketek, herri kirolek, Euskal Herri aldaezina, betierekoa islatu nahi zuten, eta, azkenik, Diputazioak eta Elizak antolatzen zituzten elizkizun ugari eta esanguratsuek, gotzaina bertaratu ohi zelarik, eta, ikusi dugun bezala, propio apaiz sermolari bat ekarri kanpotik, bere jardun hotshandikoa barreiatzen zuten.

Horrela bada, mende hasieran euskara, atenporala dirudien baserri-giro batetik dator eta bere inguruan bizi eta **elikatzen da**⁴³. Aiher dio mugimenduari, aldaketari, honek heriotza ekar baitiezaioke. Horregatik ideologiaren ikuspegitik iragana du ia identifikazio bakarra. Atenporala, beraz, egoera hori guztia, bera *segurtatzen* duen Probintziako **agintaritza bezalako**⁴⁴.

Lore Jokoak, gertakari bereizirik jazotzen ez bazen behintzat, maiztasun finkatu batez ospatu nahi ziren 1925 urtera arte. Eta horrela gertatu zen. Orduan izango baitute azken agerraldia. Data honek mentalitate aldaketa sakonik adierazten ez badu ere, argi geratuko da antolatzailer nagusia zen Gregorio Mujikak urte berean zioen bezala, Jaien izaera egokitu behar izango zuten. Harrezkeroko kultur ospakizunek beren barrutia izanen dute, arestian aipatu ditugun gainerako **agerraldietatik aparte**⁴⁵. Horra, bada, Euskal Lore Joko haien espirituaren nolakotasuna laburbildurik.

2

Eranskinak



2.1. Jaien antolakuntza

Behin Lore Jokoak Eibarren ospatzeko erabakia hartu ondoren, antolakuntzari ekin behar zitzaion. Hona hemen aurrekariak.

Hasteko, **1907ko azaroaren 27ko saioan** honela zioen alkateak **plenoan**⁴⁶:

Particular: El Sr. Alcalde hablando de las Fiestas Euskaras que corresponden celebrar el próximo año en esta villa, hizo constar sería necesario aunque todavía no urge, comenzar á formar Comisiones con objeto de empezar los estudios de la fecha en que se deve (sic) llevarse á cabo la fiesta y formar el programa para lo cual tiene que ponerse de acuerdo la Diputación y Ayuntamiento y así bien recomendó que sería conveniente se incluyera en el Programa un concurso con premio para aquellos que escribieran mejor la monografía de Eibar desde su principio á los tiempos actuales recalcando sobre todo los progresos y desarrollo de la Industria Eibarresa= Así bien los Maestros de Dibujo podrían presentar muestras de los trabajos que se hacen desde el principio del estudio de dibujo de adorno y lineal hasta el término, formando grupos por años ó graduación= En conclusión se acordó á propuesta del Sr. Iriondo (D. Jose Ramon) se anuncie ó abra un Concurso con premio de cien pesetas en metálico al que durante todo el mes de Diciembre próximo presente el mejor proyecto programa de festejos para las Fiestas Euskaras y más tarde se nombraran por el Ayuntamiento Subcomisiones para tratar y resolver cuantos asuntos se refieran á dichas fiestas.

LORE JOKOAK NOIZ OSPATU

Sesión del día 4 de Diciembre de 1907

Particular: Por último hablando de las Fiestas Euskaras que corresponde celebrarse en esta villa el próximo año 1908 se trató de fijar los días en que deben celebrarse estas y el Sr. Alcalde expuso que habiendo hablado en la Diputación sobre este asunto, debía ponerse de acuerdo el Ayuntamiento y Diputación opinando él con objeto de que las fiestas fueran de una sola vez que estas debían verificarse la semana de San Juan, pues cayendo este día en Martes podían comenzar el Viernes y terminar el Domingo.= Al Sr. Iriondo le parece mejor se celebren por el mes de Setiembre, fundándose en que el mes de Junio es muy temprano y que el mes de Setiembre es mas propio por la mucha gente forastera que se encuentra en los Bañerios eta (sic) y después de otras manifestaciones que se hicieron todas ellas como un cambio de

impresiones, se acordó dejar todo á juicio de la Comisión que deberá empezar los trabajos semanales pasado este mes, formando subcomisiones y solicitando además la protección ó ayuda de las Sociedades y otras personas= Por último acordó se anuncie por edictos fijados al público el Concurso de proyectos de programas para Fiestas Euskaras con premio de cien pesetas para el que presente mejor programa advirtiendo que los concursantes deberán ser hijos de esta villa ó vecinos de la misma, y se tendrán que sugetar á la cantidad de quince mil pesetas consignadas para dichos festejos en el presupuesto Municipal.

Baina “kaletarrek” erabiltzen zuten argudioez kanpo, baserritarren nahia ere irailean zegoen. Hain zuzen, euren arrazoiek funtsezkoak ziruditen guztiz. Diputazioko Fomento Batzordeko arduradunek horixe aholkatu zieten Diputazio bertako agintariei. Ordura arteko uztailea hilabete txarra zen, baserritarrek sasoi horretan beren etxaldeetan lan handia baitzuten. Bestalde, ganaduak ere oso tratatu txarrak hartzen omen zuen beroagatik eta era guztietako intsektuengatik. Ildo beretik, uztailean lurrak ematen dituen fruituak ere ez omen zeuden oraindik aski umatuak. Hitz batez, irailak abantaila asko zituen uztailearen aldean. (Fomento Batzordearen txostena Diputazioari, 1908-05-15).

EGITARAU EDO PROGRAMA ONENARI SARIA

Ayuntamiento de Eibar

El Ayuntamiento de mi Presidencia en Sesión Ordinaria celebrada el 27 de Noviembre último, acordó se anuncie ó abra un Concurso con premio de cien pesetas en metálico, al que durante todo el mes de Diciembre presente el mejor proyecto-programa de festejos para las Fiestas Euskaras que han de celebrarse en esta villa el próximo año de 1908.

Los concursantes que deberán ser hijos de esta villa ó vecinos de la misma, deberan presentar sus proyectos de programa en pliegos cerrados y al Sr. Alcalde que suscribe antes del 1º de Enero del año próximo, y se tendrán que sugetar al hacer los cálculos de gastos á la cantidad de 15.000 pesetas consignadas para dichos festejos en el presupuesto Municipal.

Lo que he dispuesto hacer público por el presente medio á fin de que nadie alegue ignorancia.

Eibar 4 de Diciembre de 1907

El Alcalde
Miguel M. Orbea

Sesión del día 2 de Enero de 1908

Particular: Seguidamente se procedió á la apertura de los cuatro pliegos y á dar lectura á los proyectos de Fiestas Euskaras presentados conforme al edicto publicado el día cuatro de Diciembre último, con opción á un premio de cien pesetas para el mejor proyecto programa de festejos que se presente, y una vez terminada su lectura el Ayuntamiento convino en que se haga un estudio comparativo de ellos y que al efecto queden sobre la mesa los mismos que son los presentados por los Sres siguientes= 1º D. Andres Acitain y don Eusebio Berraondo. 2º D. Bonifacio Villabella= 3º D. Gregorio Quiliquili= 4ª D. Jose Madinabeitia y D. Niceto Muguruza= Asi bien y al objeto de hacer el estudio acordado se nombró una Comisión compuesta de los Sres Alcaldes, Suinaga, Iriondo (D. Jose Ramon) y Barrutia quienes informaran al Ayuntamiento lo procedente.

IRUZKINA

Hasteko esan, Gregorio Berraondo jaunak bere lana baztertu egingo zuela, horretarako 1908ko urtarrilaren 17an udalari berariaz idatzi zion gutunean adierazten zionez, korporazioari eskatzen zion ez zezala berea eztabaida ere egin: (...) “Desea por razones que por el momento no debo exponer, retirar el referido programa y al efecto suplico á Vd. me entregue antes de que sea sometido á discusión”.

Hiru egitasmo geratzen ziren, beraz.

Behetik hasita, Quiliquili sinatzen zuen jaunarena, Donostiako Lore Jokoetan ospatu ohi zirenei begira aurreikusten zen, berak ere horrela aditzera ematen zuelarik. Lore Jokoen betiko egiturari, alegia. Dantzariak eurak ere, Donostiatik bertatik ekarriko zituela adierazten zuen. Bada, ohiko ospakizuna: dantza-saioak, bertsolariak, euskal-jolasak, oro har, danborrada...

Beste biek ez bezala, honek ez zuen inolako gogoetarik egiten, Lore Jokoen espirituari buruz.

Madinabeitia-Muguruzaren eta Villabella jaunen artean zegoela joko aski garbi zirudien. Hona hemen, dena den, aurretik, udal korporazioaren gogoeta.

Sesión del día 29 de Enero de 1908

Particular: Traidos nuevamente sobre la mesa los proyectos de programa de Fiestas Euskaras presentadas por D. Bonifacio Villabella, D. Jose Madinabeitia en unión de D. Niceto Muguruza y el de D. Gregorio Quiliquili y después de

hacer constar el Sr. Presidente que había sido retirada la presentada por D. Andres Acitain y D. Eusebio Berraondo, expuso el Sr. Barrutia que estudiados los mismos en el seno de la Comisión especial al efecto designada y discutidos ampliamente los proyectos de Acitain y de Madinabeitia y compañero, encontraron muy bueno y de gran cultura el primero pero á su juicio y de D. Jose Ramon Iriondo faltaba en él algunos números de atracción y llamativo á los forasteros, tales como un concurso de Bandas Cabalgatas= El Sr. Orbea hace constar se estudiaron por la Comisión tres proyectos, el presentado por Acitain en unión de Berraondo, el de D. Bonifacio Villabella y el suscripto por los Sres Madinabeitia y Muguruza, rechazándose el cuarto presentado por D. Gregorio Quiliquili, retirado después, el proyecto primero queda á resolver el segundo y tercero del Sr. Villabella el uno y de los Sres. Madinabeitia y Muguruza el otro= El Sr. Suinaga expone á continuación existe muy pequeña diferencia entre los programas del Sr. Acitain retirado y el del Sr. Villabella y despues de hacer constar que no es necesario que el Ayuntamiento tenga que sugetarse en un todo al proyecto que se apruebe, sino que el Ayuntamiento tomará lo más útil y conveniente, terminó diciendo debe de adoptarse alguna resolución. = El Sr. Acha indica que ya que son dos los programas á discutir se debía repartir el premio entre los dos, pero á continuación propuso el Sr. Suinaga se conceda el premio creado de las cien pesetas al proyecto del Sr. Villabella= Interviene de nuevo el Sr. Alcalde para manifestar que ya que se ha creado un premio para el mejor programa y aun cuando la cuantía de él no implique nada existirá sin embargo un prurito de amor propio entre los aspirantes y si el Ayuntamiento no quiere exponerse á un feo tiene que declarar cual de los proyectos es el mejor, dando una resolución final, así que su parecer es de que el primer premio tiene que llevar uno, ahora bien si el Ayuntamiento quiere crear un segundo premio no tiene tampoco inconveniente= Replica el señor Acha que al indicar su parecer de repartir á medias ha sido mirando el asunto bajo el aspecto económico. (.....)

Barrutiak dio bere aldetik alderik ez dagoela Villabella eta Madinabeitiaren lanen artean, saria bien artean banatzea proposatzen du.

Botoetara joko dute nor den onena ebazteko:

7 zinegotzik (alkatea barne), Villabellarenari damaiote botoa; 1ek, bakarrik, Barrutia jaunak, Madinabeitiarenari. Azkenik, honelatsu ebatzi zen sarien kontua:

(...) Como de nuevo insiste el Sr. Alcalde si se quiere crear un segundo premio de veinticinco pesetas ó se le dirija un oficio laudatorio á los Sres Madinabeitia y Muguruza por su proyecto se acordó se les dirija esto último en atento oficio.

Amaitzeko, merezi luke sendagile bi hauen programaren zehaztasunak hemen aipatzea, euren originaltasunagatik ez bada ere. Beste maila batean baitzegoen, kultur kezka aldetik behintzat. Hona, hain zuzen, zer proposatzen zuten aipaturiko alorrean: (...) “Deben hacerse gestiones a fin de vencer las muchas dificultades que se presenten para poder dar dos óperas vascongadas”. (4. or.)

Hitzaldi sailean ere, Jose Salaverria idazlea, R. Azkue musikari eta euskaltzale handia, T. Aranzadi antropologoa eta F. Grandmontagne federalista, kazetari eta hizlari ezaguna, besteak beste, proposatzen zituzten.

Musikarien artean albokariak ekartzea aurreikusten zuten, gazteriak: “el dulce y rudo instrumento primitivo” ezagutu zezan (12. or.).

Azken berezitasun bezala, baserriak zuritzea proposatzen zuten: (...) “Era práctica antigua el blanquear los caseríos de los pueblos en que se reunían las Juntas Generales; creemos que sería muy útil y bello el imitarles” (4. or.)

2.1.1. Kronologia labur bat

Ondoko lerroetan Eibarko Udalak, Lore Jokoen ospakizuna zela eta, bultzarazi zituen ekimen batzuk zerrendatuko ditugu.

- 1.- Martxoaren 26n, Udalaren deia jai-batzordeak osatzeko.
- 2.- Martxoaren 31n, bilera garrantzizkoa. Jai Batzordeak osatzen dira. Alderdi eta elkarte gehienak daude bertan. Herritar ezagunekin batera, kasinoak, alderdi politikoak, zine eta antzoki, zezenplaza, frontoi, herriko bandak eta orfeoak.
- 3.- **Apirilaren 24an, Diputazioari idazten zaio esanez, uztailan ez baizik eta irailean komeni zaiola udalerriari jaiak ospatzea.** Geroago ematen dugu berorren berri.
- 4.- Udalgizonen batzorde batek Donostiara joko du, Agirre, Errasti eta J. R. Iriondo zinegotziaz osatua. Ondoko eskaria daramate: (...) “El establecimiento de una Central Telefónica” .
- 5.- Maiatzaren 15ean Diputazioak onartu egingo du data aldaketaren proposamena. Jaiok, beraz, irailaren 4, 5, 6 eta 7an ospatuko dira. Arrate Eguna Jaietatik kanpo geratzen zen.
- 6.- Maiatzaren 25ean Jai Batzordeak lanean hasten dira. Udalbatzarekin batera. Zerrenda luzea da. Herri baten aniztasunaren erakusgarri bikaina, dena den. Bertan dira, kasinoak: *De la Amistad, Artístico, de la Juventud Republicana, Liberal, Tradicionalista*; gero *Batzoki Eibartarra, Club Eibarrés, Lagun Artea, Sociedad Patronal, Federación de Sociedades Obreras, Sociedad Alkartasuna, Banco de*

pruebas de cañones, Sociedad de Socorros Mutuos, Tutelar, enpresarioak: Salón Teatro, Zezenplaza, Cruceta antzokia, Astelena frontoia, la Marcial banda, Orfeón Eibarrés, Orfeón Vasco-Fuerista Eibarrés. Ondoren, Eibarko enpresagizon ezagunenen izenak ageri dira.

7.- Jaien inguruko prospektua argitaratzen da. Harrigarririo, ideien irabazleak, B. Villabella jaunak, dio ez datorrela bat aipaturiko prospektua berak aurkeztu duenarekin eta bere kontura, berak aurreikusten zuen bezala, bere programa inprimatuko du.

8.- Ekainaren 10ean, Diputazioaren gutun bati erantzunez, erakundeetako bakoitzak zer ardura hartu behar duen finkatzen hasiko dira.

Apirilaren 24ko gutuna

Gipuzkoako Diputazioak zalantzan zeukan Lore Jokoen data. Egia esatera, uda edo udagoen hasierako egunak izan ohi ziren horrelako ospakizunen datarik ohikoenak. Bergaran, esaterako, hiru urte lehenago, urrian ospatu ziren; Elgoibarren uztailean, eta Eibarrerako ekaina aurreikusten zuten Diputazioan.

Baina ondoko gutunean, Hilarion Suinaga alkateak, bere arrazoiak ematen ditu data baten alde egiteko. Udalak eztabaidatua zuen eta Suinagak berretsi: hobe zen iraila, ekaina baino, noiz San Juan jaiak izaten baitziren; uztaila eta abuztua ere baztertu egin behar ziren, noiz hiriburuetako jaiak giro guztia bereganatzen baitzuten (=las fiestas de las capitales lo absorven todo); hobeto zetorren, bada, irailean ospatzea, zehatz esateko, zioen alkate jaunak, hilaren lehen hamabostaldian. Bere iritziaren alde egiten zuten halaber, Jaien Egitaraua osatzera aurkeztu ziren lanek. Haiek ere, iraila jotzen zuten hilabeterik **egokiena**⁴⁷.

Gainera, gehitzen zuen Suinagak, Diputazioak uztailaren 1. astean aurreikusia baitzuen, ez zegoen astirik ezer ganoraz antolatu ahal izateko. Azkenean, Eibarko udalaren iritziak balio izan zuen. Hona Eibartik, apirilaren 24an, bidali zen gutuna:


Excma. Diputación de Guipúzcoa

S. Sebastián

Exmo. Sr.

El suscrito primer Teniente Alcalde de esta villa en funciones del propietario, cumpliendo acuerdo adoptado por este Ayuntamiento en Sesión de este día, á V.E. con el debido respeto y consideración tiene el honor de exponer:

